

IRUÑEKO UDALA

EKINTZA-PLANA

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

AGIRIAREN EGILEA:

Arbuniés y Lekunberri ASOCIADOS

2025eko abendua

Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak gauzatu du zuzendaritza eta ikuskapen instituzionala.

Arbuniés y Lekunberri Asociados SL sozietatearen ardura izan da idazketa eta partaidetza-prozesua.

Hauen partaidetza izan du: herritarrak, kolektiboak, ikastetxeak, jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako profesionalak, udal-langileak eta bestelako entitate publikoak.

PLAN4CET  LIFE PLAN4CETen –Europar Batasunaren LIFE programarekin batera finantzatutako proiektuaren– esparruan eratu da dokumentu hau. Dokumentu honen edukia egileen erantzukizun esklusiboa da, eta inolaz ere ezingo da ulertu Europako Batzordearen iritzia islatzen duenik.

AURKIBIDEA

Dokumentuan baliatutako akronimoak eta laburdurak 4
1. ZATIA SARRERA..... 6
1. Aurkezpena..... 7
2. Nola egin zen? 9
Ekintza-plana taxutzeko prozesua..... 9
Dokumentuaren funtsezko egitura 10
3. Irismena eta jomugak..... 12
JIHPEren irismena..... 12
JIHPEren jomugak..... 13
4. Plan estrategikoaren printzipioak 14
JIHaren ikuspegi hirukoitza duen plan estrategikoa 15
5. JIHPEren balioak 20
2. ZATIA: 21
ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK..... 21
6. Ildo estrategikoak..... 22
7. Helburuak eta ekintzak..... 23
1. IE. Udalaren lankidetza-sarea..... 24
2. IE. Hezkuntza-sareak eta sare hezitzaileak..... 30
3. IE. Jasangarritasunerako herritarren sareak 34
8. Sintesi-koadroa..... 38
Ingurumen-lehentasunen/gaien arabera antolatutako ekintzak..... 38
Xedeko hartzaileek antolatutako ekintzak..... 41
Eremuaren arabera antolatutako ekintzak 44
Berdintasuna sustatzen duten ekintzak 47

DOKUMENTUAN BALIATUTAKO AKRONIMOAK ETA LABURDURAK

- ANFAS. Desgaitasun intelektuala edo garapen-nahasmendua duten pertsonen eta haien familien aldeko Nafarroako elkartea.
- GE. Gurasoen elkartea.
- HAI2030. Hiri Agenda Iruña 2030.
- Ud. Udalak.
- CEA. Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia.
- CENEAM. Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala (Espainia).
- HLHI. Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
- IB. Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratua.
- CO_2. Karbono dioxidoa
- EHAEO. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.
- LHI. Lehen Hezkuntzako Ikastetxe/Eskola Publiko.
- H. Hezkuntza.
- IH. Ingurumen Hezkuntza.
- JIH. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza.
- JIHNE. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia.
- NGB. Naturagune Babestuak.
- DBH. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- ETKAE 2030. Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia 2030 (Iruña).
- NUKF. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- LH. Lanbide Heziketa.
- BHI. Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- LBEAE. Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria.
- I. Ingurumena.
- IM. Iruñerriko Mankomunitatea.
- ED/EE. Ez daki/Ez du erantzuten.
- BLB. Birgaitzean Laguntzeko Bulegoa.
- GJH. Garapen Jasangarrirako Helburuak.
- ONCE. ONCE Fundazioa, Desgaitasunen bat duten Pertsonekiko Lankidetzarako eta haien Gizarteratzerako.
- GKE. Gobernuz Kanpoko Erakundea.
- EKB. Eraldaketa Komunitariorako Bulegoa.
- JIHEP. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana (Espainia).
- JIHPE. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa (Iruñean).
- SEEP. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (Espainiako Gobernua).
- UGESP. Udalaz Gaindiko Eraginpeko Sektore Plana.
- IHP. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.
- PBHS. Pirinioak Bizirik Hezkuntza Sarea.
- SS. Sare Sozial.
- DJHS. Drainatze Jasangarriko Hiri Sistema.
- AHT. Abiadura Handiko Trena.
- NUP. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- UNAV. Nafarroako Unibertsitatea.

1. ZATIA SARRERA

GURE EKINTZA BIDERATZEN DUEN ESPARRU OROKORRA



1. AURKEZPENA

Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza (JIH) ezinbesteko palanka da gaur egun hiri justu, bizigarri eta jasangarri baterako trantsizioan. Iruñeak, hiri-ekosistema bizi eta askotarikoa den heinean, erantzun kolektibo, informatu eta eraldatzaileak eskatzen dituzten ingurumen-, gizarte- eta kultura-erronkei aurre egiten die. Testuinguru horretan, JIHPEren Ekintza Plana partekatutako ibilbide-orritzat jotzen da, ezagutzak, jarrerak eta konpromisoak aktibatzeko, haren mugez eta aukerez kontzienteago izango den hiri-eredu baterantz aurrera egite aldera.

Ekintza Plan hau Iruñeko Udalaren JIHPEren bigarren dokumentua da, eta diagnostikoan identifikatutako ikaskuntzak eta lehentasunak proposamen zehatz bihurtzen ditu, genero-eraginaren azterketa zeharka txertatuta, gainera. 2026-2032 aldia bilduz, ildo estrategikoak, helburuak eta ekintzak zehazten ditu, JIHak udalerrian aldaketa ekosozialaren eragile gisa duen eginkizuna indartzeko.

Dokumentu hori udal-arlo desberdinekin egindako partaidetza-prozesu baten bidez eratu da, eta diagnostikoan gizarte-erakundeek, herritarren kolektiboek, pertsona interesatuek eta hezkuntza-sektoreak jasotako ekarpenak biltzen ditu. Eratze partekatu horrek, legitimitatea eta begirada-aniztasuna emateaz gain, Iruñean sustatu nahi diren politika publikoen eta hezkuntza-jardunen arteko koherentzia ere indartzen du.

Dokumentua bi zatitan egituratuta dago:

- Lehenengoak –sarrera gisakoak–, JIHPEren jarduerak bideratzen dituen **esparru orokorra** eskaintzen du, eta udalak JIHaren alorrean gauzatutako ekintza inspiratzen duten printzipioak, balioak eta jomugak zehazten ditu.
- Bigarrenak, berriz, **ildo estrategikoen eta helburuen** inguruan antolatzen ditu proposatutako **ekintzak**, udalaren esku-hartzea modu koherentean egituratze eta ezarpena errazte aldera.

Orokorki, Ekintza Planak JIH hurbil, praktiko eta eraldatzaile baten aldeko apustua egiten du, askotariko publikoekin ekintzen medioz. Lehenik eta behin, Udalak berak ereduzko eginkizuna hartzen du bere gain, eta jasangarritasuna txertatzen du zeharka. Horretarako, udal-langileen eta politikarien barne-prestakuntza, diziplinarteko proiektuen garapena eta arloen arteko koordinazio handiagoa bultzatzen dira, sustatutako balioen araberako administrazio baterantz aurrera egite aldera. Beste zerbitzu batzuekiko lankidetzaren eta esku hartzeko guneen dibertsifikazioaren bitartez, herritar guztiengana iristea da jomuga, bai eta udal-alorretiko oihartzuna pixkanaka zabaltzea ere.

Hezkuntzaren arloan, prozesu-proiektu komunitarioak, sareko lana eta hezkuntza-komunitateen parte-hartze aktiboa bultzatzen ditu. Ikastetxeen lana hurbileko ingurunera iristearen aldeko apustua ere egiten du. Horretarako, alde batetik, ibilbide tematiko malguak dituzten ikastetxeei laguntza eskaintzen zaie, eta, bestetik, hezkuntza-komunitate osoaren –nola irakasleen eta

ikasleena hala irakasle ez diren langileen eta familien– prestakuntzan eta trebakuntzan eragiten du. Hori guztia, beste udal-arlo batzuekiko eta erakunde publikoekiko koordinazioa ahaztu gabe.

Herritarrekin eta kolektiboekin, jasangarritasuna pentsatzeko eta bizitzeko modu berriak inspiratzen dituzten partaidetza-prozesuak sustatzen dira, eta, batez ere, hori modu kolektiboan egin dadila lortzeko xedea du. Bestalde, hiriko esku-hartzeetan herritarren sentsibilizazioarekin eta parte-hartzearekin laguntzea, JIHa pertsonen eguneroko errealitatean lurreratzeko, kontzeptuzkoa eta praktikoa lotuz. Barnean hartzen ditu esperientzia inspiratzaileetan oinarritutako prozesu-programak, detektatutako beharretara egokitutako prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak, eta herritarren ekimenei, kolektibo sozialei eta profesionalei laguntza aktiboa ematea. Koherentzia eta inpaktua indartzen dira udal-arloen eta beste erakunde batzuen arteko elkarlanaren medioz.

Azkenik, ebaluazio- eta ikerketa-prozesuek hiru jarduketa-ildoetan jasotako ekintzen etengabeko hobekuntza eta egokitzapena bideratu behar dute.

Hiru jarduketa-ildo dituen ekintza-plan bat, helburu bera izanik hiru ildook: kultura- eta balio-aldaketa bat bultzatzea, gizarte-, ingurumen- eta klima-erronkei koordinazioz, parte-hartzez eta dagokion erantzunkidetasun instituzional eta sozialez eta behar bezala erantzute aldera.

2. NOLA EGIN ZEN?

Ekintza-plana taxutzeko prozesua

Ekintza Plana eratzeko koordinazio-lanak, kabinete-lana eta partaidetza-ekintzak biltzen ditu. Garapena IHko Zerbitzuaren idiosinkrasiara egokitu da, lankidetza, jarraipen-lana eta etengabeko laguntza errazte aldera.

1. **BITARTEKO KOORDINAZIO-BILERA**. Egungo egoera eta atazak berrikusteko.
2. **UDAL-PLANTILLAK Ekintza Plana egiteko lanean izandako partaidetza.**
   Beste udal-arlo batzuekin kontrastatzea eta prospekzio eta proposamenak egitea, lana ezagutarazteko, balioesteko eta JIHaren eremuko lankidetza-ekintzen proposamena errazteko, ekintza horiek baitira JIHPEren oinarri.

- IHko Zerbitzuarekin doitzeko eta parte hartzeko tresnak prestatzea.
- 5 eztabaida-talde sortu ziren hainbat udal-arlorekin:
  - 1. taldea. Hirigintza Gerentzia, Proiektuak, Mugikortasuna eta Iruña Biziberritzen.
  - 2. taldea. Partaidetza, Kultura, Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntza eta Komunitate Ekintza.
  - 3. taldea. Hiri Kontserbazioa eta Lorategiak.
  - 4. taldea. Energia Agentzia-Bulego Berdeak, Hiri Ekologia eta Bulego Estrategikoa.
  - 5. taldea. Energia Agentzia-Bulego Berdeak, Hiri Ekologia, Bulego Estrategikoa eta y Plan4set.

3. **EKINTZA PLANAREN ZIRRIBORROA** egitea IHaren ezarpenean aurrera egiteko informazio garrantzitsuarekin.
   Planaren proposamena parte hartutako diagnostikoaren emaitzetatik sortzen da, laguntza teknikoaren ezagutzarekin, IHko Zerbitzuaren esperientziarekin eta lanaren fase honetan egindako parte-hartze prozesuarekin osatuta.
4. **BITARTEKO BILERAK** IHko taldearekin, egindako lana kontrastatzeko eta baliozkotzeko ez ezik, Ekintza Planean integratu beharreko ekintzak hobetzeko proposamenak jasotzeko ere bai. Aldizkako 12 bilera egin dira.
5. **EKINTZA-PLANAREN DOKUMENTUA berrikusita**, aldez aurretik egindako lan tekniko eta partaidetzazkoa kontuan hartuta.

Ekintza-proposamenak elkarrekin aztertu genituen, horietan sakondu genuen eta dokumentu batean irauli genituen.

Emaitza:

Ekintza Planaren dokumentua

Dokumentuaren funtsezko egitura

Ekintza Plana egituratzeko, kontuan hartzen da, aldi berean, sareko eredu bat eta ur-jauziko eredu bat. Ikuspegi horrek aukera ematen du orokorretik zehatzera aurrera egiteko, koherentzia, lerrokadura eta zeharkakotasuna bermatuz plangintza-sistema osoan.

Harremanen sareko eredua



JIHPEren ereduaren oinarria **sareko harreman** bat da, ez lineala, jomugena, printzipioena eta balioena, ildo estrategikoei eta, ondorioz, horiek garatzen dituzten helburu eta ekintzei ere eragiten diena. Horrela, planaren **ikuspegi estrategikoa** osatzen duten balioak, jomugak eta printzipioak ildo estrategikoetako bakoitzaren idiosinkrasian islatuta daude.

JIHPEen harreman-sareko eredua

Horrela, **jomugek** JIHPEren etorkizun estrategikoa zehazten dute, eta argi eta garbi ezartzen dute norantz egin aurrera. Geroagoko erabaki guztiak bideratzen dituen erreferentzia-esparru globala osatzen dute. Hortaz, ildo estrategiko bakoitza egituratzen duten helburuen eta ekintzen zehaztapena bideratzen du.

Printzipioak JIHPEren diagnostikoaren emaitza dira. Diagnostikoaren ondorioetatik sortzen dira, eta esparru-dokumentuen eta erreferenteen beste printzipio batzuekin elikatzen eta lerrokatzen dira, hala nola JIHEPekin. **Balioek** alderdi metodologikoa ematen dizkigute, ekintzak nondik diseinatzen diren kontatzen digute eta sinesmenak edo filosofia irudikatzen dituzte.

Printzipioek eta balioek jomugak babesten dituzte ikuspegi anizkoitzetik (kontzeptuala, metodologikoa eta operatiboa), eta ibilbide-orri egituratzaile gisa dihardute. Jomugak ardatz orientatzaile bihurtzen dituzte, eta ildo estrategikoak garatzeko ekintza-irizpideak ezartzen dituzte.

Ur-jauziko eredua

Osagarri gisa, JIHPEek hierarkia antolatuak ezartzen ditu, orokorrenetik zehatzenera.



Gai orokorrenetatik gai zehatzagoetara doan ur-jauziko egitura bat

Ildo estrategikoak –IEak– xedeko hartzaileak erreferentziatzat hartuta itxuratzen dira, eragingarritasuna eta praktikotasuna ematen dela aplikatzean. Kasu honetan, hiru ildo estrategiko ezarri dira, beste hainbeste helburu publikotan oinarrituak: udal-plantilla eta politika; hezkuntza-komunitatea; eta herritarrak.

Ildo estrategiko bakoitzaren barruan **helburuak** ezartzen dira, lortu beharreko asmoak zehazteko, ikuspegi estrategikoa emaitza neurgarri eta ebaluagarri bihurtzeaz gainera.

Azkenik, **ekintzek** operatiboki garatzen dute ildo estrategiko bakoitza, helburuak gauzatuz eta ikuspegi estrategikoaren eta ezarpen praktikoaren arteko lotura eraginkorra ziurtatuz.

Orokorki, eredu horrek **beheranzko koherentzia (ur-jauzikoa)** eta, aldi berean, **zeharkako interkonexioa (sarekoa)** bermatzen ditu, jomugek, printzipioek eta balioek JIHPE osoaren elementu egituratzaile gisa dihardutela seguru egote aldera.

3. IRISMENA ETA JOMUGAK

JIHPEren irismena

JIHPEk udal-eremuan garatzen diren JIHko ekintzak indartzeko esparru gisa antolatu eta balio du, metatutako esperientzia, dauden arau-esparruak eta esparru estrategikoak eta gizarte- eta ingurumen-krisiaren eta krisi klimatikoaren ondoriozko behar berriak integratuz. Hiriko JIHari koherentzia, jarraitutasuna eta eraldatzeko gaitasun handiagoa ematea ahalbidetzen duen tresna egituratzaile gisa ulertzen da, eta xede du bidezko trantsizio ekologiko baterantz aurrera egitea.

Ekintza Planak hezkuntza-testuinguru guztiak biltzen ditu (formalak, ez-formalak eta informalak), eta Iruñeko gizartearen askotariko xedeko hartzaileei zuzentzen zaie: haurtzarotik helduarora, herritarrak orokorrean, kolektibo sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-komunitateak orekaz txertatuta. Era berean, JIHPEk udal-zerbitzu guztietara zabaltzen du bere irismena, eta jasangarritasunaren zeharkakotasuna sustatzen du politiken plangintzan, exekuzioan eta ebaluazioan. Ekimen puntualen zatiketa gainditzen du, eta sakonki eraldatzeko prozesuetarako bidea irekitzen du.

Ikuspegi integral batetik, JIHPEk arlo lokala eta globala, indibiduala eta kolektiboa antolatzen ditu, esparru estrategikoekin lerrokatuz: Espainiako Estatuaren mailan JIHEPrekin, eskualdearen mailan JIHMEekin eta lokalki, azkenik, Hiri Agendarekin eta ETKAErekin. Egungo gizarte- eta ingurumen-erronkei koordinazioz, partaidetzaz eta erantzunkidetasunez erantzutea ahalbidetuko duen kultura- eta balio-aldaketa sakona sustatzeko azken helbururako lagungarria da. Esplizituki txertatzen ditu generoaren, justizia sozialaren eta giza eskubideen ikuspegiak, aniztasunari arreta berezia emanik eta hezkuntza- eta gizarte-eraldaketarako prozesuetatik kanpo inor ere geratzen ez dela ziurtatuz.

Eremu operatiboan, JIHPEk Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren esku-hartze ereduari ere heltzen dio, eta giza baliabideen, baliabide ekonomikoen eta materialen kudeaketa efizienteagora eta beste udal-zerbitzu batzuekin integrazio handiagoa lortzera bideratzen du haren bilakaera. Lehentasuna ematen zaie herritarren benetako aktibazioari, sareko lanari, eraikuntza kolektiboari eta barneko ingurumen-prozesuak indartzeari, prestakuntza-planak eta arloen arteko elkarlanak barne hartuta.

JIHPEren jomugak

JIHPEk hiri informatuagoa, kontzienteagoa eta jasangarritasunarekin konprometituagoa eraikitzen lagundu nahi du, ingurumen- eta klima-krisiaren aurreko erantzunak modu kolektiboan diseinatu eta abian jartzeko gai izanen dena, eta, horregatik, honako jomuga hauek adierazten dira:

JIHko udal-estrategia finkatzea, egin beharreko trantsizio ekologiko bidezkoan laguntzeko.

JIHPEren helburu nagusia JIHaren udal-estrategia bat finkatzea da, Iruñeko gizartean eta inguruan duen eragin positiboa nabarmen handitzeko. Jomuga zera da, JIHak ikusgarritasun eta aintzatespen handiagoak izan ditzan eta udal-bizitzako esparru guztietan eragingarritasunez aplikatuta egon dadin lortzea; horretarako, zuzenean eta elkarlanean lagundu behar da gizartea, ingurumena eta biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzen. Lan honen helburua da Iruñeak iraunkortasunarekin, gizarte-ekitatearekin, genero-berdintasunarekin eta biztanleriaren egungo eta etorkizuneko ongizatearekin duen konpromisoa sendotzea, JIHa udal-ekintzaren ardatz estrategiko gisa kokatuz.

Egungo errealitate konplexua ulertzen laguntzea, herritarren partaidetza eta ekintza errazteko

JIHEPri eta Iruñeko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren misioari jarraikiz, JIHPEk ikaskuntzak, hausnarketak, jarrerak eta gaitasunak bultzatzeko xedea du, herritarrek gizarte- eta ingurumen-arazoen konplexutasuna uler eta pentsamendu kritikoa eta berritzailea gara dezan, alternatiben eraikuntzan esku hartzeko duten gaitasuna aitortze aldera. Horrela, JIHEPren xedea da gizartearen partaidetza kontzientea eta erantzunkidea indartzea, bidezko trantsizio ekologikoarekin lotutako hausnartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuetan.

Herritarren eta komunitatearen aktibazioa bultzatzea, ingurunearekin erlazionatzen garen moduaren aldaketa sistemikoan elkarrekin parte hartzeko.

JIHEPren funtsezko beste helburu bat da JIHaren zeregina indartzea, funtsezko tresna baita ingurunearekin harremanetan jartzeko moduan aldaketa sistemikoa lortzeko, planeta-mailako garapen-ereduetarako trantsizioa azkartuko duten gizarte-, kultura-, balio- eta antolaketa-aldaketak sustatuz. Horrek esan nahi du aurrera egin behar dela ekintza isolatu eta indibidualetatik prozesu kolektibo, jarraitu, koherente eta ebaluagarrietara, nola hezkuntza formalaren esparruan, hala herritarrekiko lanean eta, jakina, udal-egituran bertan. Honenbestez, eraldaketa sakonak erdietsi nahi dira, hirian ezarrita geratuko direnak.

4. PLAN ESTRATEGIKOAREN PRINTZIPIOAK

JIHPEren printzipioak dokumentu osoa orientatzen duten eta koherentzia ematen dioten funtsezko ardatz gisa zehazten dira, JIHaren eta jasangarritasunaren arloko erreferentziazko esparru estrategikoarekin –hots, JIHEPekin– lerrokatzea bermatuz.

11 ideia horiek diagnostikoaren ondorioetatik eratortzen dira eta JIHPE gidatzen duten lehentasunak eta ikuspegiak laburbiltzen dituzte, helburu lokalen eta autonomia-erkidegoan, Espainiako Estatuan eta mundu osoan hartutako konpromisoen arteko koherentzia bermatuz.

Lerrokatze estrategiko horretatik abiatuta, JIHPEk ikuspegi partekatu bat egituratzen du, aukera ematen duena JIHa politika publikoetan integratzeko, haren zeharkako izaera indartzeko eta Iruñeko gizarte-, ingurumen- eta lurralde-hobekuntzan duen eraldaketa-ahalmena maximizatzeko.



JIHPE egituratzen duten printzipioak

1. ondorioa:
JIHak udalerri-mailan duen pertzepzioa bat dator esparru estrategikoarekin

JIHaren errealitatea bat dator Udalaren esparru estrategikoarekin eta JIHkoarekin

Iruñeko Udalean, orientatzen gaituen eta oinarri gisa balio duen esparru bat du JIHak. Horrela, JIHPEren jatorriak Iruñeko Hirirako IHaren 2017-2019 Estrategiari lekukoa hartu dio, eta ETKAEren 5. helburu estrategikoan jasotako 1. ekintzaren garapena bete du. «Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategiko berria eratzea ETKAEren helburuak txertatuta eta genero-inpaktua aztertuta».

Gainera, bat dator JIHEPren eta JIHNEren printzipio eta ekintzekin. Besteak beste, JIHko talde egonkorrak behar direla nabarmentzen da. Ildo horretan, Iruñeko Udalak ingurumen-hezkuntzako lantalde bat du, ingurumen-hezkuntzako teknikariaren hiru lanpostuz eta koordinazio-lanpostuz osatua, guztiak funtzionarioak izanik. Plantilla horrek lanaren jarraitutasuna eta JIHPEren bultzada eta garapena bermatzen ditu.

2. ondorioa:
JIHaren 3 ikuspegiak ikusgarri egin behar dira, eta horietan sakondu behar da

JIHaren ikuspegi hirukoitza duen plan estrategikoa

JIHPEk ikuspegi anizkoitzarekin heltzen dio JIHari. Lehenik eta behin, **kudeaketa-tresna** gisa aplikatzen eta udal-politika publikoetan integratzen da; hortaz, administrazioaren eremu guztietan egotea bermatzen da. Bigarrenik, **hezkuntza-tresna** gisa deskribatzen da, hezkuntza-komunitatean prozesu eraldatzaileak eta parte-hartze bidezkoak sustatzera bideratuta dago, jasangarritasunarekin konprometitutako kontzientzia kritikoa sustatzeko. Azkenik, **gizartea eraldatzeko tresna** gisa duen eginkizuna ere aitortzen da, herritarren parte-hartzea, komunikazioaren hobekuntza eta gizarte bidezkoago baten eraikuntza kolektiboa bultzatzeko.

Kudeaketa-tresna | **Hezkuntza-tresna** | **Gizartea eraldatzeko tresna**

JIHaren ikuspegi hirukoitza JIHPEn.

3. ondorioa:
Desoreka dago xedeko hartzaileekin egindako esku-hartzean

Xedeko hartzaile nagusiak modu orekatuan integratzen dira

JIHPE askotariko xedeko hartzaileen inguruan egituratu da, gizarte osoa barne hartzeko. Alde horretatik, udal-langileak eta politikariak barne hartu dira, entitatea bera jasangarritasunaren aplikazioan eredugarri izatea garrantzitsua dela kontuan izanik. Hezkuntza-sektorearekin egindako lana ahaztu gabe, hezkuntza-komunitate osoa bezala ulertuta. Azkenik, proposamenak herritarrekin sakontzen eta zabaltzen ditu, kolektibo sozial eta profesionalei harrera eginez. Era berean, udaletako zein udalez gaindiko beste erakunde eta kolektibo batzuekiko lankidetza sustatzen da.

JIHPE ardazten den xedeko hartzaile nagusiak

UDALA
Udal-lantaldea
Politikari taldea

HEZKUNTZA-SEKTOREA
Hezkuntza-maila guztietako hezkuntza-komunitateak

HERRITARRAK, KOLEKTIBO SOZIAL ETA PROFESIONALAK

4. ondorioa:
JIHPEk hiriko ingurumeneko ardatz tematiko guztiekin lan egin behar du

Ingurumen-lehentasunek gidatzen dituzte lan-ildoak

JIHPEk udal-estrategia eta -planetan zehaztutako eduki nagusiak areagotzen ditu. Sei esparru tematiko handitan antolatzen ditu, ekintzak hiri jasangarriago batera bideratzeko eta lurraldearen ingurumen-errealitatea helarazteko. Planaren garapena lerrokatu egingo da Udalak une bakoitzean zehaztutako lehentasunekin.

TRANTSIZIO ENERGETIKOA Energia-efizientzia Autokontsumoa Karbono-neutraltasuna	**AGROEKOLOGIA** Elikadura osasungarria eta jasangarria Elikagaien ekoizpena	**LURRALDE ERRESILIENTEA** Hiri-plangintza jasangarria Hiri-berroneratzea Arriskuen kudeaketa Mugikortasuna Hiri-fluxuak
EKOSISTEMA BIZIA Biodibertsitatea Birnaturalizazioa Azpiegitura berde eta urdina Osasuna eta ongizatea	**KOMUNITATE AKTIBOA** Kontzientzia ekosoziala Ekintza eta partaidetza Kultura ekosoziala	**TOKIKO EKONOMIA** Kontsumo arduratsua. Turismo jasangarria Tokiko eta hurbileko merkataritza

JIHPEren lehentasunezko ardatz tematikoak

Ingurumen-lehentasunak hiria ekosistematzat hartuta izendatu zira. Hala, ulertzen da hiri batek sekula ez diola uzten komunitate batez eta horiek erlazionatzen diren ingurune fisikoaz osatutako sistema biologiko izateari, materia- eta energia-fluxu batzuen medioz. Ingurune fisikoa, hiriak hartzen duen azalera ez ezik, komunitateak funtzionatzeko baliatzen duen den lurraldea. Ildo horretan, azpimarratzekoa da hiriak lurraldeari dion ekomendekotasuna, zeinak kalteberatasun sakona sortzen baitu haren funtzionamenduan. **Hiri-lurraldeen** begirada oso horrek gida bat izan behar du, gauzatzen diren politikak markatzeko, eta, ahal duen neurrian, udalerritik bertatik baliabideak sortzea bultzatu behar du.

Ikuspegi horretatik, **trantsizio energetikoa** funtsezkoa izanen da sistema autosufiziente baterantz aurrera egiteko, efizientzia energetikoan eta autokontsumoan oinarrituta. Beste gakoetako bat elikadura izanen da; **agroekologia** gure hiriaren elikatzeko eraren iparrorratza izan behar da, eta, horretarako, merkaturatze-zirkuitu laburrak defendatu behar dira, 0 km-ko elikagai ekologikoei eta sasoikoei balioa eman behar zaie eta elikagai propioak sortzea bultzatu behar da. Hiriak **lurralde erresilientea** izan behar du, erregulatzeko eta etorkizuneko aldaketetara egokitzeko gaitasuna duena. Ekosistema bat, ororen gainetik, **sistema bizi** bat da, biodibertsitatea duen hiri bat, bertako komunitatearen osasuna eta ongizatea bermatuko dituena eta hiriaren birnaturalizazioa bultzatuko duena. **Komunitateak aktiboa izan behar du**, kontzientzia ekosoziala eduki behar du, eta ekintza kolektibo eraldatzaileak sortu behar ditu. Azkenik, **tokiko ekonomiak** kontsumo eta ekoizpen arduratsu eta hurbilekoaren aldeko apustu garbia egin behar du.

5. ondorioa:
JIHak politika publikoak blaitu behar ditu, eta horietan guztietan txertatu behar da.

JIHPEk sustatzen du JIHa integratzea politika publiko guztietan, eta prestakuntza azpimarratzen du.

JIHPEk bere ildo estrategiko guztietan proposatzen ditu sinergia berriak –nola Udalaren zerbitzuen artekoak, hala tokiko eta eskualdeko erakundeen artekoak– sortzera bideratutako ekintzak. Zeharkako eta diziplinarteko lan baten bidez, lanpostu guztietan jasangarritasun-ikuspegi batekin eragina izateko xedea duen begirada holistiko batekin.

Horretarako, ezinbestekoa da JIHa zeharkako tresna integratua izatea, ingurumen-prestakuntza maila guztietan errazteko eta proiektu eta ekintza partekatuak sustatzeko. IHko Zerbitzuak eta udaleko langileek eta politikariek eskatzen duten lan-ildo hori bat dator 1. ardatzarekin, hau da, JIHak JIHEPren (Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Plana) politika publikoetan txertatzearekin, eta ETKAEren 5. helburuarekin («Iruñeko gizartean kultura ekosoziala ezartzea»). Horren arabera, Administrazioko eragileen arteko koordinazio- eta komunikazio-mekanismoak ezarri behar dira, bai eta udal-langileentzako eta politikarientzako prestakuntza-programak ere.

6. ondorioa:
beharrezkoa da eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-prozesuetara jotzea

Planak hezkuntza-arloko prozesu komunitarioak lehenesten ditu

Hezkuntza-komunitateari zuzendutako JIHan prozesu-proiektu komunitarioak garatzearen aldeko apustua egiten da. Hezkuntza-prozesuak curriculumean txertatzeak eta prozesu horiek denboran irauteak ahalbidetu egiten dute ikastetxearen ezaugarrietara egokitzea, eta hezkuntza-komunitate osoaren –eta ez soilik ikasleen– eraldatzeko, parte hartzeko eta aktibatzeko gaitasuna areagotu egiten da. Horrela, ikastetxetik ateratzea du helburu, lana ingurune hurbilera zabaltzeko.

Lan-metodologia horrek sektoreak eskatzen dituen hainbat ekintza biltzen ditu, hala nola JIHko prestakuntza, ikastetxeen arteko koordinazioa erraztea eta hezkuntza-prozesuei laguntzea, JIHaren zerbitzuaren eginkizuna JIHaren eremuan dauden baliabideak eta proposamenak integratzen edo koordinatzen dituen erreferentziazko entitate gisa, eta esperimentazioan oinarrituta egonik transferentzia, sareko lana eta kontzientzia kritikoa sortzea erraztuko duten ekintzak eskura jartzea.

Jarraibide horiek jarraiki egiten diote JIHEPren esparru estrategikoari, zehazki, 2. ardatzari («JIHko programak eta jarduerak berritzea, ikertzea eta hobetzea») eta 3. ardatzari («Jasangarritasuna hezkuntza- eta prestakuntza-sisteman txertatzea»), bai eta udal-esparruari ere, zehazki, ETKAEren 5. helburuari, zeinak irakasleentzako, udal-langileentzako eta politikarientzako prestakuntza-programak egitea ezartzen baitu.

7. ondorioa:
herritarren prozesu eraldatzaileak eta parte-hartze bidezkoak beharrezkoak dira

Prozesu eraldatzaileak eta parte-hartze bidezkoak herritarrek sustatzen dituzte

Gizarte-eraldaketarako tresna den aldetik, JIHak herritarren benetako aktibazioa ahalbidetu behar du. Horretarako, JIHPEk prozesu inspiratzaileak eta imajinario berriak sortu eta indartzea proposatzen du, koherentzia instituzionaleko ekintza-alternatiba positiboak barne hartuko dituztenak. Ahalegin horiek ekintza indibidualetatik haratago joatera eta ekintza kolektiboak bultzatzera bideratuta daude.

Ezinbestekoak diren partaidetza- eta ikerketa- eta ebaluazio-estrategiak bultzatzen dira, emaitzak erakusteko eta berrikuntzarako tresna berriak proposatzeko. Horren guztiaren osagarri, komunikazioa hobetu behar da, bai eta kanalak xedeko hartzaileetara egokitu eta hartzaileetara iristeko modu erakargarri eta berritzaileak bilatu ere.

Arestian aipaturikoa bat dator hauekin: JIHEPren 6. ardatza («Komunikazioa, dibulgazioa eta herritarren ekintza») eta ETKAEren 5. helburua («Prozesu eraldatzaileak eta parte-hartze bidezkoak sustatzea»).

8. ondorioa.
JIHaren eragina hiri osora zabaldu behar da.

Planak esku hartzeko guneak dibertsifikatzeko lan egiten du

Udalaren baliabide materialetako bat da Ingurumen Hezkuntza Museoa, orain arte JIHko jardueren erreferentea izan dena. Haatik, funtzionaltasunei buruzko hausnarketa eta azterketa sakon batek museoak izaera soziokomunitario handiagoa izatea proposatzen du. Bestalde, udal-ekipamenduetan ere JIHa integratu nahi da, haren eragina maximizatzeko, kontuan hartuta hiriko espazioetako esku-hartzea orekatzeko eta JIHa estrategia berritzaileagoetara egokitzeko beharra dagoela.

Ideia hori bat dator 5. ardatzarekin («JIHEPren esku hartzeko agertokiak eta espazio espezifikoak»), hau da, JIHa berariazko ekipamenduetan edo beste espazio publiko batzuetan sustatzearekin eta esku hartzeko eredu berriekin (JIHrako ekipamenduen kudeaketa soziokomunitarioa, JIHaren ekipamendu publiko ez-espezifikoen erabilera, etab.).

9. ondorioa:
Askotariko metodologiak behar dira, berritzaileak, xedeko hartzaileengan

JIHak metodologiaberritzaileak eta askotarikoak erabiltzen ditu

JIHak gizartea eraldatzeko duen zereginean aurrera egiteko, ezinbestekoa da metodologia askotarikoak, berritzaileak, sortzaileak eta xede duten hartzaile motara egokitutakoak integratzea. Metodologia horiek –partaidetza aktiboan, sareko lanean eta eraikuntza kolektiboan oinarritutakoek– jakintza-trukea, hausnarketa partekatua, pentsamendu kritiko eta berritzailea eta proposamenak sortzea errazten dute, eta proposamen horiek inplikatutako pertsonen beharrei eta testuinguruei modu eraginkorragoan erantzuten diete. Onartzen da krisiari ematen dizkiogun erantzunak konplexuak direla eta haietara iristen lagunduko duten metodologia askotarikoak behar dituztela.

JIHko tresnak kontuan hartuko dituzten hainbat ekintzari heltzen zaio, eta tresna horiek xedeko hartzaileen arabera desberdin erabiliko dira.

Horrek guztiak aukera ematen digu berritzeko eta bestelako hartzaile batzuengana iristeko, ikaskuntza- eta partaidetza-prozesu inklusiboagoak sustatuz.

Informazioa-komunikazioa	**Prestakuntza-trebakuntza**	**Partaidetza**	Ikerketa-Ebaluazioa

JIHko tresnak JIHPEren esparruan

10. ondorioa: Programen berrikuspena beharrezkoa da etengabeko hobekuntzarako

Ikerketa eta ebaluazioa beharrezkoak dira etengabeko hobekuntzarako

JIHPEren diagnostikoak erakusten du, beste arlo batzuekin alderatuta, hala nola prestakuntzarekin edo informazioarekin, ikerketa eta ebaluazioa, oro har, gutxi landu direla JIHan, baina ez da ahaztu behar funtsezko alderdiak direla. Presentzia txikia izan arren, beharrezkoak dira JIHko ekintzek eta eragin positiboek gizarte-eraldaketan eta udal-kudeaketaren hobekuntzan duten eragina ulertzeko eta balioesteko.

Horregatik, JIHPEren ildo estrategikoek modu aktiboan eta sakonki txertatzen dituzte ikerketa- eta ebaluazio-prozesu sistematikoak –praktikak hobetzera, eskura dauden baliabideak optimizatzera eta ekimenen eraginkortasuna sendotzera bideratuak–, JIHaren helburuetarako esanguratsuki lagungarriak direla ziurtatuz betiere.

11. ondorioa: JIHak genero-ikuspegia eta aniztasunarekiko arreta txertatu behar ditu

JIHPEk genero-ikuspegia eta aniztasunarekiko arreta txertatu behar ditu

Egindako lanean oinarrituta, JIHari lotutako pertzepzioetan eta ekintzetan aldea ikusten da sexuen artean. Desberdintasun horiek eduki, metodologia eta interesekiko lehentasunetan islatzen dira, eta horrek agerian uzten du zeinen garrantzitsua den proposamenen diseinuan begirada askotarikoa eta inklusiboa sartzea. Horregatik, ekintza-planak kontuan hartuko ditu ikuspegi horiek, gizarte- eta ingurumen-arloko ikaskuntza- eta eraldaketa-prozesuetan partaidetza ekitatiboa eta eraginkortasun handiagoa bermatzeko. Bestalde, JIHPEk, oro har, aniztasuna bere osoa kontuan hartzen du, irisgarritasunaren, justizia sozialaren eta giza eskubideen ikuspegia kontuan hartuta, gizarte jasangarriago, bidezkoago, irisgarriago eta ekitatiboago baterantz aurrera egiteko.

5. JIHPEREN BALIOAK

JIHak ezin du mugatu informazioa transmititzera edo jardunbide egoki isolatuak sustatzera; aitzitik, modu kontziente eta jarraituan landu behar ditu naturarekin, gainerako pertsonekin eta gure hiriarekin nola erlazionatzen garen orientatzen gaituzten balioak. Balioek ematen diote zentzua ezagutzari, eta horiei esker, denboran zehar jarrera, erabaki eta portaera koherente bihurtzen da ezagutza.

JIHPEn, haren oinarri diren balioak bat datoz indarrean diren udal-estrategiekin, bereziki Hiri Agendarekin eta ETKAErekin, eta, gainera, JIHaren berezko printzipio eta balioetan sakontzen dute.

Berdintasuna	Intersekzionalitatea	Gizarte- eta ingurumen-justizia	Errespetua	Elkartasuna
Zainketa	Enpatia	Konpromisoa	Pentsamendu kritikoa	Partaidetza
Ahalduntzea	Ingurumen-kontzientzia	Nahikotasun-printzipioa	Berrikuntza	Eraginkortasuna

JIHPEren balioak, udal-estrategiei eta JIHaren gorputz teorikoari lotuak

Hala, JIHPE Iruñeko hezkuntza- eta ingurumen-ekintza gidatzen duten balio multzo batean dago funtsatuta, jasangarritasunarekin eta gizarte-justiziarekin koherenteak diren jokabideak eta jarrerak sustatuz.

Berdintasuna eta intersekzionalitatea hauek bermatzen dituzten funtsak dira: pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere. Funtsezko balio horiek **gizarte- eta ingurumen-justiziarekin** osatzen dira, giza ongizatea ekosistemen kontserbazioarekin orekatzea baitu xede horrek.

Errespetuak eta **elkartasunak** pertsonen, komunitateen eta belaunaldien arteko kooperazioa eta elkarrekiko laguntza bultzatzen dute. **Zaintzak** pertsonekiko, naturaguneekiko eta hiri-ingurunearekiko arreta kontzientea islatzen du, bizitza bere forma guztietan babesteko eta mantentzeko ohiturak sustatuz.

Enpatiak, **konpromisoak** eta halako balioek alderdi emozionala ekintzarekin lotzen dute, beste pertsona batzuk ulertzeko eta ingurunearekiko eta gizartearekiko erantzukizunak hartzeko gaitasuna sustatuta betiere. **Pentsamendu kritikoa** informazioa, jardunbideak eta erabakiak zalantzan jartzera eta aztertzera bideratzen da; **partaidetzak** eta **ahalduntzeak**, berriz, herritarrak eta komunitateak gaitzen dituzte jasangarritasunerako eraldatze-prozesuetan aktiboki parte hartzeko.

Ingurumen-ekintzarekin lotura zuzenagoa duten balioetan ere jartzen du indarra JIHPEk, hala nola **ingurumen-kontzientzian** –arazo ekologiko eta sozialekiko eta ezagutza eta sentsibilitatea sustatzen dituenean–, eta **nahikotasun-printzipioan**, hots, behar dugunarekin konforme egotea, balio hori funtsezkoa baita gizarte- eta ingurumen-krisiari aurre egiteko.


2. ZATIA:

ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK



6. ILDO ESTRATEGIKOAK

JIHPE hiru ildo estrategiko nagusitan antolatzen da, horietako bakoitza publiko desberdin batentzat pentsatua eta JIHa lantzeko modu zehatz batean zentratua.



1. IE. Udalaren lankidetza-sarea

Lehen ildo estrategikoak jasangarritasuna Udaleko arlo guztietan zeharka integratzea du helburu, JIHa udal-kudeaketa hobetzeko tresna baliagarria izan dadin lortze aldera. Hori lortzeko, langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzen dira, bai eta arloen arteko lankidetza ere, gure ingurunearen kudeaketa arduratsuagoa eta koherenteagoa jadeste aldera.

2. IE. Hezkuntza-sareak eta sare hezitzaileak


Bigarren ildo estrategikoa hezkuntza-sektoreari zuzentzen zaio, curriculumean eta irakaskuntza-jardunetan jasangarritasuna txertatzen lagunduko duen ikuspegi pedagogikoa lehenetsiz. Irakasleen eta ikasleen sentsibilizazio-, prestakuntza- eta laguntza-ekintzak biltzen ditu, jasangarritasunaren arloan dituzten gaitasunak indartzeko, JIHa ikaskuntzaren parte natural izan dadin.

3. IE. Jasangarritasunerako herritarren sareak

Hirugarrena herritarren eta kolektiboen parte-hartzea eta gizarte-eraldaketa sustatzean datza, ikuspegi kultural eta komunitario batean funtsatuta, pertsonak beren egunerokotasunean jasangarriagoak diren ohiturak, balioak eta portaerak hartzera animatuz.

ILDO ESTRATEGIKOA	XEDEKO HARTZAILEAK	JIH-REN IKUSPEGIA	LEHENTASUNEZKO JIH-KO TRESNAK
1. IE	Udaleko lantalde teknikoak eta eta politikoak	JIHa kudeaketa-tresna gisa	Sentsibilizazioa Prestakuntza Kudeaketa
2. IE	Hezkuntza-sektorea: hezkuntza-maila guztietako hezkuntza-komunitatea	JIHa hezkuntza-tresna gisa	Sentsibilizazioa Prestakuntza eta tresnak
3. IE	Herritarrak Kolektibo sozialak, ekonomikoak, etab.	JIH gizartea eraldatzeko palanka gisa	Sentsibilizazioa Partaidetza

7. HELBURUAK ETA EKINTZAK



1. IE. Udalaren lankidetza-sarea

Laneko JIHko estrategiaren ekintza, 8 urteko zerbitzuaren ondoren, zeharkakotzean kokatuta egon da funtsean, beste udal-zerbitzu batzuekin batera egindako baterako lanaren medioz. Ibilbide horren ondoren, ezinbestekotzat jotzen da lan-eremu horretan sakontzen jarraitzea. Horregatik, JIHa funtzio publikoan sartzeak duen garrantzia eta herritarrenganako eragin biderkatzailea izateko aukerak kontuan hartuta, udal-talde teknikoei zuzendutako estrategia-ildo espezifiko bat planteatu da.

1.1. helburua. Udal-langileak jasangarritasunean sentsibilizatu eta trebatzea

Udal-langileei zuzendutako jasangarritasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza lanpostuan zuzenean aplikatzen diren formatuetan gauzatu behar da. Horrek berekin dakar ekintza egokituak eta praktikoak garatzea, hala nola ikastaroak, tailerrak, prestakuntza-kapsulak edo bisita teknikoak, eguneroko zereginei lotuak, jasangarritasuna lan-errutinan integratzea ahalbidetuko dutenak. Era berean, udal-eremuko adibide zehatzak eta partaidetzan funtsatutako dinamiken erabilera lagungarriak dira konpromisorako; hala, administrazio publikoaren barruan praktika arduratsu eta jasangarriak lortzeko benetako aldaketa lortzen da. Orobat, esperientzia-elkartrukea eta beste udalerri batzuetan ezarritako proiektu arrakastatsuak ezagutzea sustatuko da, elkarlaneko ikaskuntza eta elkarrekiko inspirazioa bultzatuz. Ekintza horien guztien aterki gisa, udal-langileei zuzendutako prestakuntza-plan orokor bat aurreikusten da.

Prestakuntza-plan orokorra garatzea	1. Prestakuntza integraleko planerako esparru-dokumentu bat diseinatzea, izapidetzea eta aplikatzea. Dokumentu horrek udal-langileen bizi-zikloaren etapa guztiak hartuko ditu barne (oposizio- eta harrera-prozesuetatik hasi eta lanpostuko garapeneraino), eta hierarkia-maila guztiak barne hartuko ditu, bai arduradun politikoak, bai talde teknikoak.
Udal-enplegu publikorako sarbidean jasangarritasuna txertatzea	2. ETKAE 2030 Iruñeko Udalaren lan-eskaintza publikoko gai-zerrendetan sartzea, lanbide-profilaren arabera edo interesgarritzat jotzen diren jasangarritasunari buruzko beste dokumentu batzuen arabera bereizitako mailekin.
Udaleko langile berriei harrera egitea	3. Udal-lantaldeko langile berrientzako harrera-saioak egitea, ingurumen-egoera globala, lokala eta udal-dokumentu estrategikoak testuinguruan jartzea, bai eta lanpostu bakoitzaren ingurumen-eskumenak ere. 4. Lanpostuan lortutako esperientziaren, JIHa biltzen duten sinergiak hautematearen eta prestakuntza-beharrak zehaztearen arabera, berriz ebaluatzeko saioak egitea.
Sentsibilizazioa eta prestakuntza orokorra udalarentzat lan egiten duten udaleko edo kanpoko langileentzat	5. Lantokiko jardunbide egokiei buruzko prestakuntza: hondakinen murrizketa eta zuzeneko kudeaketa, energia-aurrezpena eta -efizientzia eta hornigaien kontsumo arduratsua. 6. JIHra hurbiltzeko sentsibilizazioa. ○ JIHaren zeregina, udal-kudeaketari laguntzeko tresna gisa. ○ Zeharkakotasunez ezartzea jasangarritasuna politika publikoetan.

	7. Herritarrekiko komunikazio-metodo eta -tresnei buruzko prestakuntza. ○ Garatzen diren proiektuetan informazioa eta komunikazioa gauzatzeko oinarrizko prestakuntza. ○ Komunikazioa egoera bortitzetan edo gatazka-egoeretan. 8. Partaidetza- eta bideratze-metodologiei buruzko prestakuntza, Partaidetza Zerbitzuarekin lankidetzan. ○ Parte hartzeko ekintzetarako lan-teknikak. ○ Taldeak bideratzeko tailerra. 9. Honako gai hauei buruzko informazio-kapsulak, "eskuragarri" formatua: ○ Naturarekin berriz konektatzea, ekodependentzia eta interdependentzia. ○ Zeharkako ingurumen-erronkak eta horiek udal-ekintzarekin duten lotura. ○ Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia, Hiri Agenda Iruña 2030, Azpiegitura Berde Eta Urdinaren Plana eta Hiri-drainatze Jasangarriko Estrategia. ○ Erosketa berdea eta jasangarritasunaren ezarpena politika publikoetan eta lizitazio-prozesuetan. ○ Hirian garatutako ingurumen-izaerako udal esku-hartzeak.
Prestakuntza espezifikoa udalarentzat lan egiten duten udaleko edo kanpoko langileentzat	10. IHko Zerbitzuak interesgarritzat jotzen dituen prestakuntzak antolatzea, gainerako udal-zerbitzuei jasangarritasun-gaietan trebatzea errazteko, hala nola hauetan: agroekologia udal-politikan ezartzea, hazkunde osteko hirietarako plangintza, energia-pobreziari buruzko prestakuntza, etxebizitza kooperatibo eta eskuragarrien ereduak, etab. 11. Beste zerbitzu batzuek detektatutako prestakuntza-beharrak hartu, jaso eta eguneratzea, hala nola hauek: drainatze jasangarriko hiri-sistemak, hiriaren birnaturalizazioa, karbono-aztarnaren kalkulua, hiri-berroneratzea, eguzki-plaken instalazioa, ingurumen-arloko arau-betebeharrak, mugikortasun jasangarria, jasangarritasunaren aplikazioa lorezaintza-obretan, jasangarritasunaren aplikazioa kirol-instalazioetan, jasangarritasunari heltzea hurbileko merkataritza-sektorean, etab. 12. Jasangarritasunari buruz lehendik dauden eta beste zerbitzu batzuentzat interesgarriak izan daitezkeen prestakuntzak ematea.

1.2. helburua. Arloen artean lankidetzan aritzea JIHa indartzeko

Udal-arloen artean koordinaziorako eta lankidetzarako guneak jada hasi dira sortzen, baina horretan sakontzea komeni da. Atal honetan, IHko Zerbitzuak lotura egonkorrak sortzeko, baliabideak, esperientziak eta erantzukizunak bateratzeko, sinergiak jadesteko eta bikoiztasunak saihesteko eman dezakeen laguntzari erreparatzen diogu bereziki.

IHko Zerbitzuak udal-agendan ingurumen-lehentasunak –hala nola agroekologia eta osasuna– txertatzeko duen eginkizunari ere heldu dio, beste udal-zerbitzu batzuekin proiektuak garatzea sustatze aldera.

Barne-kudeaketa jasangarrira hobetzen dugu, ekintza globalen bidez	1. Udal-langileentzako informazio eta sentsibilizaziorako kanpaina, kontratak eta garbiketa-zerbitzuak barne harturik.

Zeharkako prestakuntzak: prestakuntzak lankidetza-esparru gisa	2. Arlo eta zerbitzuetako diziplina arteko eta diziplina anitzeko lanari lotutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea, hala nola lantaldeetan erabakiak batera hartzeari lotutako proiektuak edo prestakuntzak garatzeko lankidetza-mahai teknikoak.
Jasangarritasuna beste zerbitzu batzuetan txertatzea	3. Agroekologia sustatzea udal-agendan lehentasunezko gai gisa. Hiri Ekologiarekin batera egin beharreko ataza da. 4. Udal-agendan interesgarriak diren beste gai batzuk sustatzea, hala nola osasuna. 5. JIHko tresnak integratzea, proiektu estrategikoen – bereziki, hainbat arloren arteko lankidetza errazteari lotutakoen– diseinutik eta exekuziorik. Lagundu dezaketen zerbitzu batzuk Hiri Ekologia, Proiektuak edo Hirigintza Gerentzia dira. 6. Kontratazio-agirietan jasangarritasun- eta ingurumen-irizpideei buruzko klausulak –jasangarritasunari lotutako prozesu-aldaketak faboratzen dituztenak– garatzen laguntzea, Hiri Ekologiarekin batera. Lagundu lezaketen zerbitzu batzuk Proiektuak, Hirigintza Gerentzia edo Iruña Biziberritzen dira. 7. Dirulaguntza- eta laguntza-agirietan jasangarritasun- eta ingurumen-irizpideei buruzko klausulak –jasangarritasunari lotutako prozesu-aldaketak faboratzen dituztenak– garatzen laguntzea, Hiri Ekologiarekin batera. Lankidetzan jardun lezaketen zerbitzu batzuk Partaidetza, Gazteria, Hezkuntza edo Berdintasuna dira. 8. Ingurumen-ikuspegia hainbat udal-arlotatik gauzatzen diren plan, estrategia eta itunetan txertatzea, Hiri Ekologiarekin batera.
Herritarrei zuzendutako hiriko esku-hartzeak komunikatzen laguntzea	9. Koordinazio egonkorra Komunikazio Zerbitzuarekin, jasangarritasunarekin lotutako komunikazio-ekintzak lehenesteko. 10. Ingurumen-gaiei buruzko komunikazioa eta informazioa modu koordinatuan ematea herritarrei, eta Udaleko zerbitzuek ematen dituzten mezuak bateratzea, bereziki Jasangarritasun Zerbitzuenak. 11. Jarduerak garatu aurretik herritarrak sentsibilizatzera eta informatzera bideratutako kanpainak diseinatzen laguntzea (lorategietako edo bide publikoko bestelako esku-hartzeak, xurgatze-basoak, komunitate-baratzeak, etab.). 12. Beste udal-zerbitzu batzuen ekintzak komunikatzen eta zabaltzen laguntzea, JIHko zerbitzuaren tresna propioekin (webgunea, sare sozialak, aldizkari elektronikoa, etab.). 13. Gainerako zerbitzuei dagozkien planen eta estrategien barne-zabalkundean eta -komunikazioan laguntzea ingurumen-gaietan, hala nola ETKAE eta azpiegitura berde eta urdinaren plana eta hiri-drainatze jasangarriko estrategia.
Inplikatutako udal-zerbitzuetan JIHko tresnak ezartzeko lankidetza	14. Beste zerbitzu batzuek egiten dituzten eta hezkuntza-ikuspegia biltzen duten ingurumen-ekintzetan lankidetzan aritzea, aholkua ematea eta JIHko irizpideak txertatzea. Gauzatu ahal diren balizko ekintzak: ○ Elkarteetan eta kolektiboetan jasangarritasun-planen sorkuntza sustatzeko partaidetza-zerbitzuari laguntzea. ○ Hezkuntza-zerbitzuarekin ingurumen-ekintzak sustatzea, hala nola hamaiketako osasungarriak, ohiturak, konpromisoak...

	○ Merkataritza eta Turismo zerbitzuekin lankidetzan aritzea, ostalaritza-sektoreak agroekologia bultzatzeko. ○ Turismo Zerbitzuari laguntza ematea Arga Ibaiaren Parkearen gainean *escape room* bat sortzeko. ○ Haurren eta Nerabe eta Gazteen zerbitzuekin elkarlanean aritzea haurrak eta gazteak mobilizatuko eta ikuspegi eta portaera jasangarri batera hurbilduko dituzten tresnak diseinatzean. ○ Berdeguneetan zentratutako JIHko programa egonkor bat ezartzen laguntzea, hezkuntza-sektoreari zuzendua, Lorategien Zerbitzuarekin. ○ Ekofeminismoari buruzko programa, Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan. ○ Udal Energia Agentziarekiko elkarlana mantentzea energia-komunitateak sortu eta garatzean eta jasangarritasun-irizpideak integratzean. ○ Proiektu-zerbitzuaren esku-hartzeetan herritarrak inplikatzea eta haien partaidetza ahalbidetzen laguntzea. 15. Komunikazio egonkorra Bulego Estrategikoarekin, JIHko proiektu europarrak bilatzeko.
Topaketa- eta lankidetza-mekanismo egonkorrak garatzea	16. Koordinazioa, lankidetza eta lan bateratua hezkuntzan eskumena duten edo hezkuntza-esparruan esku hartzen duten beste udal arlo batzuekin (Hezkuntza, Partaidetza, Mugikortasuna, Proiektuak, etab.). 17. Gizarte Ekintzako Arloarekin koordinatzea, lankidetzan aritzea eta lan bateratua egitea jasangarritasuna bere alderdi sozialenean garatzeko. 18. Mahai teknikoetan eta zerbitzuen arteko lankidetza-mahaitan –nola existitzen direnetan hala etorkizunekoetan– parte hartzea, hala nola hauetan: eskolako jolastokiak birnaturalizatzeko mahaia, ikaskuntzarako eta zerbitzurako mahaia, etorkizuneko zainketen mahaia, etab. 19. Zerbitzuen arteko mahai tematikoak sortzea, JIHa aplikatzeko gai zehatzekin, hala nola hauekin: ○ Udalak herritarrentzat eginiko eskaintzan jasangarritasuna txertatzea, hala nola zerbitzu interesdun hauetan: Gazteria, Haurrak, Adinekoen Sarea, Kultura, etab. ○ Herritarrei ingurumen-kudeaketako esku-hartzeak komunikatzea, eta horietan sentsibilizatzea, partaidetzarako bide eman dezaketen zerbitzuen bidez, hala nola Proiektuak, Hirigintza Gerentzia, Iruña Hiri Bizigarria eta jasangarritasun-zerbitzuak.

1.3. helburua. Egungo ingurumen baliabide- eta -ekipamenduen erabilera optimizatzea.

Udalak hainbat ingurumen-ekipamendu eta -baliabide ditu, bai erabilera zuzenekoak, bai beste erakunde batzuei lagatzekoak. Helburu hori honetan datza: JIHaren ikuspegi bateratua ematea eta laguntzea, hirian egiten diren jardueren proposamen koherente eta koordinatu bat sortuz. Horrela, IHko zerbitzuak laguntzaile eta babeslearen eginkizuna du.

Bestalde, Ingurumen Heziketarako Museoa ez da ingurumen-jardueren ardatz zentralizatzailea, hiri osoan zabaldu eta dimentsionatzeko. Une horretatik aurrera, gune hori pixkanaka beste zerbitzu batzuetako udal-jarduerez betetzea lortu nahi da, bai eta kolektiboek egindako ingurumen-jarduerez elikatzen jarraitzea ere, behin betiko erabilera zehaztu arte.

Ingurumen-arloko beste baliabide eta espazio batzuei babesa eta laguntza ematea	1. Aholkularitza eta laguntza beste zerbitzu batzuen gauzatutako ingurumen-baliabideetan, hala nola hiriko naturaguneen seinaleei buruzkoetan. 2. Aholkularitza eta laguntza ematea beste entitate batzuek, hala nola Casa Sotok, ingurumen-ekipamenduetan egiten dituzten ingurumen-jardueretan.
Ingurumen Hezkuntzako Museoari balioa ematea ekipamendu publiko gisa.	3. Udaleko beste zerbitzu batzuek gunea erabil dezaten bultzatzea, Gizarte Ekintzak edo Gazteriak jada usatzen dituzten bezala. 4. Ingurumen-gaiak lantzen dituzten kolektiboei gunea lagapenean uztea. 5. Ekipamendua egokitzea behar berrietara, eta horietarako mantentze-lanak egitea.

1.4. helburua. Udalaz gaindiko trukea bultzatzea

Helburu hori udal-esparrutik haragoko ezagutza, esperientzia eta metodologien trukea sustatzera bideratuta dago, udalaz gaindiko sareek ikasketa kolektiborako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako gune gisa duten balio estrategikoa aitortuz. Helburu horrek honako hauek nabarmentzen ditu: teknikarien arteko zuzeneko harremanak, lotura profesionalak sortzea eta lankidetza-dinamikak ezartzea, ezagutzaren transferentzia eta lan-sare iraunkorren eraikuntza errazteko, ekintza publikoa koordinatuagoa eta partekatutako erronkekin lerrokatuagoa egon eta efikazagoa izan dadin lagunduta.

Udalaz gaindiko erakunde interesgarriekiko koordinazioa	1. Jasangarritasun-arloan lan egiten duten udalaz gaindiko erakundeekin koordinatzea, esate baterako: Lursarea, Nasuvinsa, MCP, Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, etab.
Sareetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea	2. JIHaren arloan lan egiten duten entitateen arteko koordinazio-egituretan lankidetzan aritzea eta parte hartzea. Honako hauek dira ekintzotako batzuk: ○ JIHEPeko –Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Planeko (Espainiako Estatua)– toki-entitateen lantaldea. ○ JIHNEko –Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategiako– toki-entitateen garapen-lantaldea. ○ Sor litezkeen beste lantalde batzuk, baldin eta interesgarriak badira. 3. Hiri Agroekologikoen Sarea bultzatzea eta bertan aktiboki parte hartzea.

	4. Iruñeko hiria sustatzea, parte hartzen duen sareen topaketa eta jardunaldien antolatzaile zein anfitrioi gisa.
Topaketak eta jardunaldiak bultzatzea	5. Udalaz gaindiko beste hiri eta entitate batzuekin topaketak bultzatzea, esperientzia arrakastatsuak eta jardunbide egokiak ezagutzeko eta teknikariak talde homologoekin harremanetan jartzeko.

1.5. helburua. JIHaren inpaktua ezagutzea eta balioestea, hobetzeko

1.3 helburua honako honetan datza: Udalak sustatutako JIHko ekintzek sortzen duten eraginari buruzko ezagutza eta hausnarketa sortzea, ekintza horien kalitatea, egokitasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, bai eta haien balioa nabarmendu dadin errazteko ere. Horretarako, ikerketa- eta ebaluazio-ikuspegi sistematiko bat planteatzen da, emaitzak neurtzeko ez ezik, inplikatutako zerbitzuen parte-hartzea sustatzeko eta erabakiak hartzeko baliagarriak izango diren ikaskuntzak sendotzeko ere bai. Hainbat ekintzaren garapena dela medio, helburu hori honetan datza: kudeaketa informatuagoa eta gardenagoa izan dadin eta JIHen tokiko politikak etengabe hobetzera bideratua egon dadin lortzea.

Inpaktuaren ikerketa-ebaluazioa	1. Parte-hartze bidezko ebaluazioak egitea, gauzatutako JIHko ekintzetan inplikatutako zerbitzuekin. 2. Proiektuen tipologia desberdinetarako erreplika daitezkeen JIHko kasuak aztertzea eta jardunbide egokiak hautatzea. 3. Lankidetza-hitzarmenak JIHan espezializatutako unibertsitate eta entitateekin, JIHko tokiko politiken eraginari buruzko gradu/master amaierako lanak, tesiak edo aplikatutako ikerketak sustatzeko. 4. JIHko ekintzek udalerrian sortutako inpaktuari buruzko azterlana egitea.

2. IE. Hezkuntza-sareak eta sare hezitzaileak

Ildo estrategiko horrek JIHaren lanketa integrala sustatzen du hezkuntzaren esparruan. Hezkuntza-komunitatea bere osotasunean hartzen du, zuzendaritza-taldeak, irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasle ez diren langileak –atezaintzako, garbiketako edo jantokiko langileak– biltzen baititu. Hezkuntza-maila guztiak integratuko lirateke horretarako, haur-eskolatik unibertsitate-etapara; halaber, bereziki nabarmenduko lirateke etorkizuneko prestatzaileak.

Aldian behingo jardueretatik prozesu-hezkuntzako proiektuetara –ikaskuntza sakon eta eraldatzaileak sortu eta hezkuntza-programen izaera komunitarioa indartuko luketenetara– eboluzionatzea proposatzen du, bai eta ikasgeletatik haratago irtetea ere, haien gertuko ingurunea eraldatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikastetxeen eta Udalaren eta inguruko beste erakunde batzuen arteko lankidetza. IHko zerbitzuaren zeregina ikastetxeei laguntzea eta lagun egitea izango da, jasangarritasuneranzko hezkuntza-prozesuak diseinatu eta garatzeko prozesuan.

2.1. helburua. Ingurumen-errealitatea ikastetxeetara eramatea

Ikasleak eta hezkuntza-komunitate osoa udalerriko ingurumen-erronka eta -lehentasunekin konektatzea da helburua. Horretarako, hauek aurreikusten ditu: tokiko gai garrantzitsuetan parte har dezaten aktibatzea, informazioa modu erraz eta esanguratsuan mobilizatu eta transmititzea, eta bermatzea garatutako ekintzak eta edukiak Udalaren lan-ildoekiko koherentziari eta sintoniari eusten diotela. Helburu hori honetan datza: ikastetxeak gune bizi bihurtzea, non inguruneko errealitatea kolektiboki ezagutzeko, ulertzeko eta eraldatzeko modukoak izango den. Eta, horretarako, komunikazioa oso garrantzitsua da, ikastetxeak ezagutarazteko ez ezik, ikastetxeei ahotsa emateko ere bai, egiten duten lana ikastetxeko hormetatik haratago erakuts dezaten.

Udal-mailako lehentasunezko gaien mobilizazioa	1. Iruñeko Udalaren lehentasun tematikoekin lotutako hezkuntza-programak babestea eta mobilizatzea. Askotarikoak izan litezke, eta eboluzionatuz joan, udal-jarraibideen arabera. Adibidez: ○ Ingurumen-gezurrak, desinformazioa eta negazionismoa. ○ Naturarekiko konexioa. ○ Osasuna eta ingurumena. ○ Agroekologia, elikadura eta kontsumoa. ○ Mugikortasuna. ○ Birnaturalizazioa. ○ Klima aldaketaren eraginak arintzea eta haiei egokitzea. ○ Edo udal-kudeaketako lehentasunezko beste gai batzuk.
Ikastetxe barrurako eta kanporako komunikazioa	2. Ikastetxeekin komunikazio ekintzak garatzea, bai hezkuntza-programen informazio-mailan, bai haientzat interesgarriak diren beste udal-ekimen batzuetan. 3. IHko Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, ikastetxeek haiei ikusgarritasuna emateko egindako ekimenen bozgorailu gisa.

2.2. helburua. Hezkuntza-komunitatearen JIHko eskumenak indartzea

Helburu hori irakasleen eta hezkuntza-komunitate osoaren gaitasunak indartzera bideratuta dago, JIHaren prozesu-ikuspegi bat sustatuz. Xedeko hartzaile erabakigarriak dira, duten eraginagatik eta eraldatzeko gaitasunagatik, bai eta eremu horretan dauden eskariengatik ere, nola ingurumen-edukiei dagokienez, hala metodologiari gagozkiola. Garrantzitsua da irakasleei ez ezik hezkuntza-komunitate osoari ere prestakuntza ematea, IHaren integrazioa erabatekoa izan dadin ikastetxeen errealitatean eta hura osatzen duten eragile guztiengana irits dadin.

Era berean, etorkizuneko prestatzaileen aldez aurreko prestakuntza eta gaikuntza ezartzen da helburu gisa, beren lan-etapa hasten dutenean beharrezko gaitasunak izan ditzaten.

Prestakuntza duten irakasleen trebakuntza babestea	1. Irakasleentzako prestakuntza orokorra, JIHko edukiei eta tresnei dagokienez, hala nola: ○ JIHra hurbiltzea. ○ Hezkuntza Ekosoziala. ○ Irakasleak ingurumen-edukietan prestatzea eta sentsibilizatzea. ○ Askotariko ikaskuntza-metodologiak (ikaskuntza esanguratsua, taldeen kudeaketarako metodoak, naturarekiko lotura, esperimentazioa, arte-diziplinak, etab.). 2. Irakasleak udal-kudeaketarekin lotutako ildo berrietan prestatzea, hala nola birnaturalizazioan edo interesgarriak diren beste batzuetan. 3. JIHko askotariko gaitasunak eta integrazioa kontuan hartzen dituzten prestakuntza espezifikoak, desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartuta. 4. Prozesu-programen garapenean trebatzea, nola garapena hala emaitzak kontuan hartuta, emaitza onak dituzten programen prestakuntza metodologikoari jarraituz, hala nola eskola-baratzeak edo xahutzearen aurkako ekintza.
Etorkizuneko prestatzaileen prestakuntza	5. Etorkizuneko prestatzaileen (irakasle-ikasketetako graduetako, Irakaskuntzako Masterreko) edo Lanbide Heziketako graduetako ikasleen (haur-hezkuntza) JIHko prestakuntzan eta trebakuntzan aurrera egitea. 6. Hainbat espezialitatetako (Lanbide Heziketa eta unibertsitateko graduak) ikasleek Ingurumen Hezkuntzako Udal Zerbitzuan praktikak egiteko programa.
Familien prestakuntza GEen eta guraso-eskolen bidez	7. Zuzeneko prestakuntza: Udalak gauzatzen dituen hezkuntza-proiektuen barruan familiak gaitzea, hala nola patioen birnaturalizazioan, etab. 8. Zeharkako prestakuntza: hezkuntzako, ingurumen-hobekuntzako eta trantsizio ekologikoko irizpideak sartzea guraso-eskolen jardueretara bideratutako dirulaguntzetan, ikaskuntza eta ezagutza berriak sortzen direla.

2.3. helburua. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-programak bultzatzea

Helburu horrek ikasleek beren gertuko ingurunea hobetzen zuzenean jardutea sustatzen du, hezkuntza eraldatzailea eta gizarte- eta ingurumen-errealitatera hurbiltzea ahalbidetuko duten JIHko metodologien bidez, ikastetxeak aldaketa-prozesuetan eta komunitate-prozesuetan esku

hartzen duela betiere. Ikasleei aukera ematen zaie, hala, jarduteko, inplikatzeko eta emaitza nabariak ikusteko, inplikatzeko eta aldaketa ikusteko. Horregatik, prozesu-programen aldeko apustua egiten da, eragin puntualenak dituzten jarduerei dagokienez.

Ikastetxeetan ingurumen-gaiei buruz egiten ari diren prozesuetan ikastetxeei lagun egitea sustatzen da, informazioa, baliabideak, ekipamenduak, zabalkundea eta abar emanez, testuinguru bakoitzera egokitutako prestakuntza-ibilbide malguak sortzen laguntze aldera, prozesuak modu integralean, autonomoan eta egokitzeko gaitasunarekin jorratzeko aukera emanik eta horien garapena eta hedapena eskola-komunitate osoari erraztuta. Gauzaturiko hezkuntza-prozesuen izaera komunitarioa indartu nahi da, toki-mailan garrantzi handiagoa sortzeko eta gertuko ingurunea gehiago eraldatzeko.

Irakasleei tresnak eta baliabideak ematea	1. Ikastetxeek kudeaketa autonomoko baliabide didaktikoak zabaltzea eta indartzea (ikaskuntza-egoerak, online jarduerak, material bidaiari eskuragarriak, etab.), lehentasunezko ingurumen-gaietan, hala nola biodibertsitatean, osasunean edo naturarekiko loturan. 2. Hiria ekosistema gisa ezagutzeko jarduera puntualen programa bat garatzea, beste zerbitzu batzuekin lankidetzan, hala nola Lorategien Zerbitzuarekin. Berdeguneak, mintegiak edo energia-azpiegiturak dira bisitatu daitezkeen leku interesgarrietako zenbaitzuk.
Ikasleekin prozesu-programetan parte hartzea eta jardutea	3. Besteak beste, «Eskolako baratze ekologikoak» eta «Energia xahutzearen aurkako ekintza» hezkuntza-programak berrikustea eta etengabe hobetzea. 4. Larrialdi klimatikoari buruzko hezkuntza- eta partaidetza-programa bat garatzea, Bigarren Hezkuntzari zuzendua, *Break-out* tresna baten inguruan. 5. Eskola-komunitatearen eta haren ingurunearen ikerketa-ekintzako programa bat garatzea, eraldaketa komunitariorako. 6. Ikastetxeei laguntza, aholkularitza eta baliabideak ematea hirian eragina duten ikaskuntza- eta zerbitzu-proiektuak edo herritarren zientzia-proiektuak diseinatzeko.

2.4. helburua. Lana, entitateen arteko lankidetza eta sareko lana sustatzea

Helburu horren bidez, sinergiak sortu nahi dira administrazio publikoen, ikastetxeen eta hezkuntza-erakundeen artean, koordinazioa, ezagutza-trukea eta proiektu partekatuen abiaraztea bultzatuta betiere. Lankidetza egituratuak eta jarraituak aukera ematen du baliabideak optimizatzeko, bikoiztasunak saihesteko eta hezkuntza-ekintza integratuagoa, partaidetza handiagokoa eta tokiko, erkidegoetako eta estatuko estrategiekin lerrokatuagoa sustatzeko. Esparru horretan, hezkuntza-programa bateratuak garatzen dira, ikastetxeen arteko sare-lanari laguntzea bultzatzen da, eta erakundeen arteko sare eta lantaldeetan aktiboki parte hartzen da, JIHaren alorrean lankidetzan aritzeko gobernantza-eredu bat sendotuz.

Hezkuntza-programak beste entitate batzuekin elkarlanean garatzea	1. Gazte atala mantentzea Nazioarteko Ecozine Jaialdian, Ecozine Kultur Elkartearekin lankidetzan. 2. Udalak sustatutako etorkizuneko hezkuntza-programak beste entitate batzuekin elkarlanean garatzea.
Ikastetxeen arteko sareko lanerako babesa eta laguntza	3. Harremanetan ipintzea, trukea eta elkar ezagutza bultzatzea eta erraztea, ikastetxeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako, askotariko tresnen medioz, hala nola: ○ IHko Zerbitzuak ikastetxeen ekimenak zabaldu ditzan, ikastetxeen arteko ezagutza, koordinazioa edo ideiak, proiektuak eta baliabideak partekatzeko aukera sustatze aldera. ○ Hainbat ikastetxe inplikatzen dituzten proiektuen lankidetza eta sustapena, Iruñean ekintza zehatzetan batu ditzaten.
Hezkuntza-sareekin elkarlanean aritzea eta hezkuntza-sareak sortzea	4. Koordinazioa eta lankidetza hezkuntzan eskumena duten edo hezkuntzaren esparruan esku hartzen duten beste entitate publiko batzuekin: ○ Eskola Jasangarriren Sarea lantaldea (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua). ○ Beste batzuk: Klima-aldaketaren Bulegoa (Nafarroako Gobernua, IM, NILSA, NUP, UNAV, etab.).

2.5. helburua. Etengabeko hobekuntza sustatzea

JIHak hezkuntza-esparruan aurrera egin dezan lortzeko, topaguneak behar dira, esperientziak trukatzeko ez ezik, elkarrengandik ikasteko eta ideia berriak sortzeko ere bai. Horretarako, ikastetxeen, unibertsitateen eta erakunde espezializatuen arteko lankidetza indartuko duten ekimenak planteatzen dira, baterako hausnarketa eta ezagutza aplikatuaren ekoizpena sustatuta betiere. Aldizkako jardunaldien, ikerketa-hitzarmenen eta inpaktu-txostenen bitartez, hezkuntza-komunitate dinamikoa eta konprometitua sendotu nahi da, JIHaren integrazioan eta haren jardunen bilakaera positiboan kolektiboki aurrera egiteko gai izango dena.

JIHa hezkuntza-esparruan hobetzea	1. Zerbitzuak gauzatzen dituen hezkuntza-programen parte-hartze bidezko ebaluazioak egitea. 2. JIHko esperientziak, tresnak, metodologiak eta abarrak trukatzeko eta elkartzeko jardunaldiak, hezkuntzaren arloko aurrerapenen balioa nabarmentze aldera. 3. Lankidetza-hitzarmenak JIHn espezializatutako unibertsitate eta entitateekin, hezkuntza-sektorean JIHa integratzeari buruzko gradu/master amaierako lanak, tesiak edo aplikatutako ikerketak sustatzeko. 4. JIHko ekintzek hezkuntza-esparruan sortutako inpaktuari buruzko azterlana egitea.

3. IE. Jasangarritasunerako herritarren sareak

Ildo estrategiko horren helburua da jasangarritasunaren unibertsoa herritarrengana hurbiltzea eta indartzea, zeharkako ikuspegi hurbiletik eta emantzipatzailetik, eta lankidetza aktiboa sustatzea, bai herritarren kolektiboekin, bai hainbat eremutako profesionalekin. JIHa prozesu partekatua, egunerokoa eta hurbiltasunetik, koherentziatik eta erantzunkidetasunetik eratua da, eta herritarrak aktibatzeko azken helburua du: modu autonomoan aurrera egiteko eta hasitako aldaketei denboran eusteko tresnak, ezagutzak eta gaitasunak ematea pertsonei.

Horretarako, hartzaileen eta testuinguruen aniztasunera egokitutako metodologia praktiko, erraz eta zuzenekoak bultzatzen dira, ekintzan zentratutako eta pertsonen eta haien ingurunearen ongizatean inpaktu erreala eta neurgarria sortzera bideratutako ikuspegi positibo batekin.

Horrela, hainbat ekintza etengabe antolatzen dira informaziotik eta komunikaziotik, herritarrak hainbat modutara interpelatzen dituztenak. Udalak ondo informatuta egon behar du, gizarte- eta ingurumen-errealitatearen eta Udalak emandako pausoen berri izateaz gainera.

Prestakuntzari eta partaidetzari dagokienez, proposatzen da herritarren aktibazioa sustatzeko jarduerak integratzea hiriak bere ekipamenduen medioz duen kultura-eskaintzaren barnean. Civivox deritzenak, liburutegiak edo museoak xede-leku bihurtzen dira, orain arte heldu gabeko xedeko hartzaileengana iristeko, gune bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako hainbat formatutan betiere. Horiek guztiak lehenetsitako ingurumen-gaien eta udal-kudeaketaren arabera egingo dira beti.

Halaber, osasun kolektiboa zaintzearen eta komunitate-sarea indartzearen aldeko apustua egiten da, helburuko hartzaileen aukera nahita zabalduz, hain ohikoak ez diren sektoreak eta hartzaile ez-gatibuak –hala nola gazteak, sektore profesionalak, etab.–, eta hiriko kultura- eta gizarte-aniztasunari arreta berezia eskainiz, tradizionalki horrelako ekimenetan parte hartzen ez duten pertsonengana eta kolektiboengana ere heltzeko.

3.1. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean

Oinarrizko premisa batetik abiatzen gara: kultura ekosozialak auzo guztietan egon behar du, hiriko hartzaile guztiengana iristen saiatzeaz gainera. Ikuspegi horretatik, herritarren mobilizazioa faboratzeko egokiak izango diren JIHko tresnak abiaraziko dira. Tresna horien guztien bidez, nola norbanakoaren kontzientzia hala taldearena indartu nahi da, bai eta erantzunkidetasuna ere; horrela, ohitura iraunkorren aldaketa kolektiboak bultzatuko dira, ongizate kolektiborako eta epe luzerako jasangarritasunerako ingurumen-kultura finkatzeaz gainera, aldaketa kolektiboetarako ekintza kolektiboak behar direlako ideia oinarri hartuta.

Herritarren eta Udalaren arteko komunikazio bideak sortzea	1. Inpaktu-gaitasuna izango duten eta nola biztanleriari orokorrean hala sektore espezifikoei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea, udal-lehentasunezko ingurumen-proiektuekin lotuta (birnaturalizazioa, energia-komunitateak, etab.). 2. Udalaren komunikazio-baliabideak erabiltzea eta kudeatzea, gizartea eraldatzeko tresna gisa: ○ IHko Zerbitzuaren webguneko edukiak kudeatzeko ekintza egonkorra, hainbat edukirekin, hala nola hauekin: programatutako programak eta ekintzak, eskuragarri dauden materialak, jarduketen egutegia, albiste interesgarriak edo beste batzuk. ○ Zerbitzuaren sare sozialen (Facebook, X eta Instagram) edukiak kudeatzea, informazioa emateko eta sentsibilizatzeko, bai eta gizartea eraldatzeko tresna gisa usatzeko ere. ○ Hamabost egunez behingo informazio-buletina egitea. ○ IHko Zerbitzuaren hainbat alderdiri buruzko komunikazio instituzionala (prentsa-oharrak, bideoalbisteak, etab.).
Kultura ekosoziala: herritarrak aktibatzeko tresna eraldatzaileak eskaintzea	3. Esku-hartzeak diseinatzea eta planifikatzea herritarrekin, lehentasunezko ingurumen-gaietan parte har dezaten bultzatzeko, hainbat sakontze-mailarekin (prestakuntza-ekintzak, jolas-ekintza orokorrak, espezializatuak, luzarokoak, konpromiso handikoak, etab.). 4. Kultura ekosoziala udalaren kultura-ekipamenduetan –Civivox delakoetan, esaterako– eskaintzen den kultura-eskaintzan integratzea, udalaren lehentasunezko ingurumen-gaien ildotik. 5. JIHa hainbat biztanleria-profilekin lan egiten duten hiriko beste gune kultural eta soziokomunitario batzuetan sartzea (hala nola liburutegiak edo museoak). 6. Kultura ekosoziala integratzea hainbat udal-zerbitzuk (Adinekoen Sarea, Garapenerako Lankidetza, Partaidetza edo Haur eta Nerabeak) herritarrei eskaintzen dieten eskaintzan. 7. Gazteentzako programa espezifikoa, gazteentzako guneetara hurbiltzen dena (aisialdi-guneak, musika-jaialdiak, udako programazioa, udalekuak, etab.), eta estrategia espezifikoak –biztanleria-sektore horretara egokituak– diseinatuko dira partaide aktibo izan daitezen. 8. Herritarrei zuzendutako boluntariotza-ekintzak garatzea (herritarren zientzia-ekintzak, landaketak, etab.), udal-kudeaketan laguntzeko eta herritarren ezagutza eta aktibazioa bultzatzeko. 9. Ekintza klimatikoko taldeak bultzatzea, trantsizio ekologikoan herritarrak modu kolektiboan ahalduntzeko. 10. Ecozine Zinema eta Ingurumeneko Nazioarteko Jaialdia garatzea.

3.2. helburua. Gizarte-kolektiboekiko lankidetza bultzatzea

Gizarte-kolektiboekiko lankidetza funtsezko ardatza da JIHko estrategian, gizarte-ehuna egituratzeko funtsezko eginkizuna eta taldekideekiko eta ingurunearekiko ahalmen biderkatzailea aitortzen baitizkio. Ikuspegi horretatik, kolektiboekin egiten den lanari modu integralean heltzen zaio, JIHaren eremu guztiak kontuan hartuz eta herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzen duten ekimenei arreta berezia eskainiz. Aldi berean, garrantzi-maila bereko beste proposamen batzuk garatzea eta zabaltzea sustatzen da, hala nola ingurumenaren garrantziari buruzko sentsibilizazioa edo energia-komunitateak bultzatzea, gizarte-konpromisoa indartzeko, JIHaren irismena zabaltzeko eta lurraldean benetako aldaketa iraunkorrak bultzatzeko gai izango diren lankidetza-sareak sortzeko.

Horrela, kolektiboetako parte-hartzaileak beraiek ezagutza areagotzen duten eragile bihurtzen dira, informazioa beste kolektibo batzuei eta, oro har, herritarrei modu ulergarrian eta hurbilean helarazteko gai. Ur-jauziko prestakuntza-eredu horrek irismena zabaltzea, kolektiboen autonomia indartzea eta trantsizio energetikoan gizarte-inplikazio zabalagoa bultzatzea ahalbidetzen du.

Herritarren kolektiboei prestakuntza eta trebakuntza ematea	1. Hausnarketa-ekintzarako dagoeneko ezarrita dauden taldeak dinamizatzea, klima-krisia modu kolektiboan lantzeko. 2. Energia-komunitateak eta halako kolektiboak osatzen dituzten pertsonentzako prestakuntza-ikuspegia, alderdi teknikoetan eta antolamenduzkoetan, komunikazio- eta sentsibilizazio-trebetasunetan edo bestelako gai interesgarrietan gaitzeko.
Kolektiboetan ingurumen-irizpideak txertatzea	3. Ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzko 36/2024 Foru Dekretuari jarraikiz, kolektiboei aholkularitza eta laguntza ematea hirian ekitaldi jasangarriak garatzeko hirian. Ekintza hori Hiri Ekologiako Zerbitzuarekin batera gauzatuko da. 4. Elkarteei ingurumen-ikuspegia emateko programa bat garatzea, Hiri Ekologiarekin batera, elkarteok ingurumen-irizpideak eta jardunbide egokiak arian-arian txertatzeko barne-funtzionamenduan eta ohiko jardueretan (baliabideen erabilera efizientea, hezkuntza hondakinen kudeaketan, mugikortasun jasangarrira, etab.).

3.3. helburua. Jasangarritasuna kolektibo profesionaletara hurbiltzea

Lanbide-talde eta -elkargoekin egiten den lanaren bidez, jasangarritasuna lanbideen eguneroko jardunean txertatu nahi da, ikuspegi horiek lan-eremura eta herritarrengana eramateko tresnak, gaikuntza eta lankidetzarako guneak eskainiz.

Helburu hori "sare-sarearen" logikatik ulertzen da, lankidetza, koherentzia eta inpaktu zabal eta iraunkorren sorrera faboratuz. Hainbat sektore ekonomiko ordezkatzen dituzten kolektiboekin lan egitea proposatzen da, ur-jauziko prestakuntza- eta sentsibilizazio-prozesuak bultzatuz. Helburua zera da, erreferentziazko profesionalak gaitzea, beren sektoreetara eta influentzia-eremuetara ezagutzak, jardunbide egokiak eta funtsezko mezuak helaraz ditzaten. Globalki heltze zaio, baina interes berezia jarriko da merkataritza-sektorean, profesionalen sektorean eta JIHn.

Sentsibilizatzeko eta mobilizatzeko lankidetza	1. Erakunde eta elkargo profesionalekin lankidetzan aritzea, ingurumen-arloko sentsibilizazio eta mobilizaziorako ekimen zehatzak sustatzeko. Adibidez:

	○ Merkataritzaren arloko jardunbide egoki eta jasangarriak. ○ Eraikinak birgaitzeko jardunbide egokiak, finken administrazioko eta beste sektore batzuetako profesionalen inplikazioarekin. ○ Jardunbide egokiak ekintzailetza-ehunarekin.
JIHko eta ingurumeneko profesionalekin sinergiak sortzea erraztea	2. JIHko eta ingurumen-arloko sare eta profesionalekin sinergiak sortzea, esperientziak trukatzeko eta proiektu komunetan lankidetzan aritzea sustatzeko, hala nola Nafarroako Ingurumen Hezkuntzako Elkartean edo Pirinioak Bizirik Hezkuntza-sarean.

3.4. helburua. Jasangarritasunaren aldeko sareak ehuntzea

Herritarren eremuan, herritarrentzat lan egiten duten kolektibo eta erakundeetatik hurbil egotea funtsezkoa da herritarren aktibazioa lortzeko ahaleginak bateratzeko. Ingurumen-gaiak lantzen ari diren kolektiboei beren ekintzen bozgorailu izango diren udal-baliabideen laguntza eta erraztasuna eskaintzen zaie. Lankidetza horiei esker, ezagutzak, esperientziak eta gaitasunak batzen ahal dira, bikoiztasunak saihestuz eta sinergiak indartuz. Aldi berean, jasangarritasunarekin konprometitutako gizarte-ehuna indartzen dute, eta erantzun koordinatuagoa eta eraginkorragoa ematen diete lurraldeko ingurumen-erronkei.

Bestalde, erakunde publikoekin lankidetza-mekanismoak eta entitateak ezartzea lagungarria izango da herritarrei eremu publikotik ematen zaien eskaintza hobetzeko.

Ingurumen-kolektiboei laguntzea	1. Ingurumen-gaiei lotutako kolektiboekin eta entitateekin (Gorosti Natur Zientzien Elkartea, Geltoki, Labea, MÁS Planeta Navarra edo Asociación para la Recuperación del Bosque Autóctono, besteak beste) proiektuak garatzen laguntzea.
Entitate publikoetatik herritarrei egiten zaien eskaintza indartzea	2. Herritarrei egiten zaien eskaintzan lankidetza eta koordinazioa entitate publikoekin, hala nola Iruñerriko Mankomunitatearekin, Nafarroako Gobernuaren Klima Aldaketaren Bulegoarekin, NUPekin eta abar.

Xedea. 3.5. JIHak gizartean duen eragina ezagutzea

Herritarrekiko lanean gauzatzen diren ekimenen ebaluazioa funtsezkoa da norainokoa ezagutzeko eta planteatzen diren helburuak lortzeko ahaleginak birbideratzen jakiteko. Ekobarometro bat, inpaktu-azterketa eta halako tresnak baliagarriak izango dira herritarrei entzuteko, haien kezkak ezagutzeko eta gizartean kontzientzia ekosoziala integratzeko aurrerapausoak baloratzeko.

JIHak kolektiboengan eta herritarrengan sortutako inpaktua aztertzea	1. Iruñeko ekobarometro bat garatzea, herritarrek ingurumenaren gainean duten pertzepzioa eta sentsibilizazio-maila jasotzeko, eta hobetzeko eremuak eta ekintza-aukerak identifikatzeko. 2. Herritarrek programak zenbateraino ikusten, ulertzen eta onartzen dituzten aztertzea, komunikazioaren jarraipenaren bidez (hedabideak, sareak, udalaren webgunea). 3. JIHko ekintzek herritarrengan sortutako inpaktuari buruzko azterlana egitea.

8. SINTESI-KOADROA

Atal honek planeko ekintza guztiak bildu eta hainbat irizpideren arabera antolatzen ditu (gaiak, jardun-eremuak, publiko objektiboak eta berdintasuna bultzatzen duten ekintzak), horiek errazago erabiltzeko.

Ingurumen-lehentasunen/gaien arabera antolatutako ekintzak

Ekintzekin zuzenean lotutako eduki espezifikoak adierazten dira, edo duten izaeragatik askotariko edukiak barne har ditzaketenak. Laukitxo guztiak ez markatzeko, prozedura-, metodologia- edo antolaketa-ekintzak ez dira markatu, baina edozein gaitatik hel dakieke.

INGURUMEN-LEHENTASUNAK		Trantsizio energetikoa	Agroekologia	Lurralde erresilientea	Ekosistema bizia	Komunitate aktiboa	Tokiko ekonomia	Ekintza metodologikoa
1. IE	**1.1. helburua. Udal-langileak jasangarritasunean sentsibilizatu eta trebatzea**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2	x						
	3	x	x	x	x	x	x	
	4	x	x	x	x	x	x	
	5	x					x	
	6	x	x	x	x	x	x	
	7							x
	8							x
	9	x	x	x	x	x	x	
	10	x	x	x	x	x	x	
	11	x	X	x	x	x	x	
	12	x	x	x	x	x	x	
1. IE	**1.2. helburua. Arloen artean lankidetzan aritzea JIHa indartzeko**							
Ekintza	1	x					x	
	2							x
	3		x					
	4	X		x	x	x	x	
	5							x
	6	x	x	x	x	x	x	
	7	x	x	x	x	x	x	
	8	x	x	x	x	x	x	
	9							x
	10	x	x	x	x	x	x	x
	11	x	x	x	x	x	x	
	12							x
	13	x	x	x	x	x	x	
	14	x	x	x	x	x	x	
	15							x
	16							x
	17							x
	18							x
	19							x

INGURUMEN-LEHENTASUNAK		Trantsizio energetikoa	Agroekologia	Lurralde erresilientea	Ekosistema bizia	Komunitate aktiboa	Tokiko ekonomia	Ekintza metodologikoa
1. IE	**1.3. helburua. Egungo ingurumen baliabide- eta -ekipamenduen erabilera optimizatzea.**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2	x	x	x	x	x	x	
	3							x
	4.							x
	5							x
1. IE	**1.4. helburua. Udalaz gaindiko trukea bultzatzea**							
Ekintza	1							x
	2							x
	3		x					
	4							x
	5							x
1. IE	**1.5. helburua. JIHaren inpaktua ezagutzea eta balioestea, hobetzeko**							
Ekintza	1							x
	2							x
	3							x
	4							x
2. IE	**2.1. helburua. Ingurumen-errealitatea ikastetxeetara eramatea**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2							x
	3	x	x	x	x	x	x	
2. IE	**2.2. helburua. Hezkuntza-komunitatearen JIHko eskumenak indartzea**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2	x	x	x	x	x	x	
	3	x	x	x	x	x	x	
	4							x
	5	x	x	x	x	x	x	
	6							x
	7	x	x	x	x	x	x	
	8	x			x			x
2. IE	**2.3. helburua. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-programak bultzatzea**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2	x	x	x	x	x	x	
	3	x	x			x		
	4	x		x		x		
	5	x	x	x	x	x	x	
	6							x
2. IE	**2.4. helburua. Lana, entitateen arteko lankidetza eta sareko lana sustatzea**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2							x
	3							x
	4							x

INGURUMEN-LEHENTASUNAK		Trantsizio energetikoa	Agroekologia	Lurralde erresilientea	Ekosistema bizia	Komunitate aktiboa	Tokiko ekonomia	Ekintza metodologikoa
2. IE	**2.5. helburua. Etengabeko hobekuntza sustatzea**							
Ekintza	1							x
	2							x
	3							x
	4							x
3. IE	**3.1. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean**							
Ekintza	1	x	x	x	x	x	x	
	2							x
	3	x	x	x	x	x	x	
	4	x	x	x	x	x	x	
	5	x	x	x	x	x	x	
	6	x	x	x	x	x	x	
	7	x	x	x	x	x	x	
	8							x
	9	x	x	x	x	x	x	
	10	x	x	x	x	x	x	
3. IE	**3.2. helburua. Gizarte-kolektiboekiko lankidetza bultzatzea**							
Ekintza	1					x		
	2					x		
	3					x	x	
	4	x				x		
3. IE	**3.3. helburua. Jasangarritasuna kolektibo profesionaletara hurbiltzea**							
Ekintza	1							x
	2							x
3. IE	**3.4. helburua. Jasangarritasunaren aldeko sareak ehuntzea**							
Ekintza	1							x
	2							x
3. IE	**Xedea. 3.5. JIHak gizartean duen eragina ezagutzea**							
Ekintza	1							x
	2							x
	3							x

Xedeko hartzaileek antolatutako ekintzak

Xedeko hartzaileen koadroak ekintza bakoitzerako lehentasunezkoak adierazten ditu.

XEDEKO HARTZAILEAK		UD. Udal-lantaldea	UD. Politikari taldea	HEZKUNTZA-ALORREKOA	Herritarrak	Gizarte-kolektiboak	Profesionalak
1. IE	**1.1. helburua. Udal-langileak jasangarritasunean sentsibilizatu eta trebatzea**						
Ekintza	1	x	x				
	2	x					
	3	x					
	4	x					
	5	x					
	6	x	x				
	7	x					
	8	x					
	9	x					
	10	x	x				
	11	x					
	12	x	x				
1. IE	**1.2. helburua. Arloen artean lankidetzan aritzea JIHa indartzeko**						
Ekintza	1	x					
	2	x					
	3	x	x				
	4	x	x				
	5	x	x				
	6	x					
	7	x					
	8	x	x				
	9	x			x		
	10	x			x		
	11	x			x		
	12	x			x		
	13	x					
	14	x		x	x	x	x
	15	x	x				
	16	x	x				
	17	x	x				
	18	x	x				
	19	x	x				
1. IE	**1.3. helburua. Egungo ingurumen baliabide- eta -ekipamenduen erabilera optimizatzea.**						
Ekintza	1	x	x				
	2	x	x				
	3	x	x				
	4.	x	x				
	5	x	x				

XEDEKO HARTZAILEAK		UD. Udal-lantaldea	UD. Politikari taldea	HEZKUNTZA-ALORREKOA	Herritarrak	Gizarte-kolektiboak	Profesionalak
1. IE	**1.4. helburua. Udalaz gaindiko trukea bultzatzea**						
Ekintza	1	x					x
	2	x					x
	3	x					x
	4	x					x
	5	x					x
1. IE	**1.5. helburua. JIHaren inpaktua ezagutzea eta balioestea, hobetzeko**						
Ekintza	1	x					
	2	x					
	3	x					
	4	x					
2. IE	**2.1. helburua. Ingurumen-errealitatea ikastetxeetara eramatea**						
Ekintza	1			x			
	2			x			
	3			x			
2. IE	**2.2. helburua. Hezkuntza-komunitatearen JIHko eskumenak indartzea**						
Ekintza	1			x			
	2			x			
	3			x			
	4			x			
	5			x			
	6			x			
	7			x			
	8	x		x			
2. IE	**2.3. helburua. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-programak bultzatzea**						
Ekintza	1			x			
	2			x			
	3			x			
	4			x			
	5			x			
	6			x			
2. IE	**2.4. helburua. Lana, entitateen arteko lankidetza eta sareko lana sustatzea**						
Ekintza	1			x		x	
	2			x			
	3			x			
	4			x			x
2. IE	**2.5. helburua. Etengabeko hobekuntza sustatzea**						
Ekintza	1			x			
	2			x			
	3			x			
	4		x	x			

XEDEKO HARTZAILEAK		UD. Udal-lantaldea	UD. Politikari taldea	HEZKUNTZA-ALORREKOA	Herritarrak	Gizarte-kolektiboak	Profesionalak
3. IE	**3.1. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean**						
Ekintza	1				x	x	x
	2				x	x	x
	3				x	x	
	4	x			x		
	5	x			x		
	6	x			x		
	7				x		
	8				x		
	9				x		
	10				x		
3. IE	**3.2. helburua. Gizarte-kolektiboekiko lankidetza bultzatzea**						
Ekintza	1					x	
	2					x	
	3					x	
	4					x	
3. IE	**3.3. helburua. Jasangarritasuna kolektibo profesionaletara hurbiltzea**						
Ekintza	1						x
	2						x
3. IE	**3.4. helburua. Jasangarritasunaren aldeko sareak ehuntzea**						
Ekintza	1					x	x
	2	x					x
3. IE	**Xedea. 3.5. JIHak gizartean duen eragina ezagutzea**						
Ekintza	1				x		
	2				x		
	3				x	x	x

Eremuaren arabera antolatutako ekintzak

JIHPEren ekintza bakoitzak jarduketa-eremu nagusi bat du, erantsitako koadroan adierazten dena. Alabaina, nabarmendu egin behar da zenbait ekintzak balitekeela esparru bat baino gehiago hartzea barne.

EREMUAK		Planifikazioa eta koordinazioa Kudeaketa	Informazioa eta komunikazioa	Prestakuntza eta gaikuntza	Partaidetza	Ikerketa eta ebaluazioa
1. IE	**1.1. helburua. Udal-langileak jasangarritasunean sentsibilizatu eta trebatzea**					
Ekintza	1	x				
	2	x	x			
	3			x		
	4					x
	5			x		
	6		x	x		
	7			x		
	8			x		
	9		x	x		
	10	x		x		
	11	x		x		
	12		x	x		
1. IE	**1.2. helburua. Arloen artean lankidetzan aritzea JIHa indartzeko**					
Ekintza	1		x			
	2	x				
	3	x	x			
	4	x	x			
	5	x				
	6	x			x	
	7	x			x	
	8	x				
	9	x	x			
	10	x	x			
	11	x	x			
	12	x	x		x	
	13	x	x		x	
	14	x	x	x	x	x
	15	x				
	16	x				
	17	x				
	18	x			x	
	19	x			x	
1. IE	**1.3. helburua. Egungo ingurumen baliabide- eta -ekipamenduen erabilera optimizatzea.**					
Ekintza	1	x		x		
	2	x		x		
	3	x				
	4.	x				
	5	x				

EREMUAK		Planifikazioa eta koordinazioa Kudeaketa	Informazioa eta komunikazioa	Prestakuntza eta gaikuntza	Partaidetza	Ikerketa eta ebaluazioa
1. IE	**1.4. helburua. Udalaz gaindiko trukea bultzatzea**					
Ekintza	1	x				
	2	x			x	
	3	x			x	
	4	x			x	
	5	x			x	
1. IE	**1.5. helburua. JIHaren inpaktua ezagutzea eta balioestea, hobetzeko**					
Ekintza	1				x	x
	2					x
	3	x				x
	4.	x			x	x
2. IE	**2.1. helburua. Ingurumen-errealitatea ikastetxeetara eramatea**					
Ekintza	1	x	x	x	x	x
	2		x			
	3		x			
2. IE	**2.2. helburua. Hezkuntza-komunitatearen JIHko eskumenak indartzea**					
Ekintza	1			x		
	2			x		
	3			x		
	4			x		
	5			x		
	6			x		
	7			x		
	8	x		x		
2. IE	**2.3. helburua. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-programak bultzatzea**					
Ekintza	1		x	x		
	2		x	x		
	3					x
	4			x	x	x
	5			x	x	x
	6			x		
2. IE	**2.4. helburua. Lana, entitateen arteko lankidetza eta sareko lana sustatzea**					
Ekintza	1		x		x	
	2			x	x	
	3	x	x		x	
	4	x			x	
2. IE	**2.5. helburua. Etengabeko hobekuntza sustatzea**					
Ekintza	1				x	x
	2	x	x	x	x	x
	3	x				x
	4				x	x

EREMUAK		Planifikazioa eta koordinazioa Kudeaketa	Informazioa eta komunikazioa	Prestakuntza eta gaikuntza	Partaidetza	Ikerketa eta ebaluazioa
3. IE	**3.1. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean**					
Ekintza	1		x			
	2		x			
	3	x	x	x	x	
	4	x	x	x	x	
	5		x	x	x	
	6		x	x	x	
	7		x	x	x	
	8				x	
	9			x	x	
	10	x	x			
3. IE	**3.2. helburua. Gizarte-kolektiboekiko lankidetza bultzatzea**					
Ekintza	1			x	x	
	2			x		
	3			x		
	4			x		
3. IE	**3.3. helburua. Jasangarritasuna kolektibo profesionaletara hurbiltzea**					
Ekintza	1			x	x	
	2				x	
3. IE	**3.4. helburua. Jasangarritasunaren aldeko sareak ehuntzea**					
Ekintza	1				x	
	2	x			x	
3. IE	**Xedea. 3.5. JIHak gizartean duen eragina ezagutzea**					
Ekintza	1					x
	2					x
	3					x

Berdintasuna sustatzen duten ekintzak

JIHPE diseinatzeko kontuan hartu dira aniztasunarekiko arreta eta genero-ikuspegia. Planteatutako ekintza guztiak begirada horretatik sortzen dira. Nahiz eta horietako batzuk profil desberdinetako emakumeek berariaz eskatu dituzten. Koadro honetan adierazten direnak dira.

BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN EKINTZAK		
1. IE	**1.1. helburua. Udal-langileak jasangarritasunean sentsibilizatu eta trebatzea**	
Ekintza	1	x
	2	
	3	x
	4	
	5	x
	6	x
	7	
	8	
	9	Az.
	10	
	11	
	12	
1. IE	**1.2. helburua. Arloen artean lankidetzan aritzea JIHa indartzeko**	
Ekintza	1	x
	2	
	3	x
	4	x
	5	x
	6	
	7	
	8	
	9	x
	10	
	11	
	12	
	13	
	14	
	15	
	16	
	17	
	18	
	19	x
1. IE	**1.3. helburua. Egungo ingurumen baliabide- eta -ekipamenduen erabilera optimizatzea.**	
Ekintza	1	
	2	
	3	
	4.	
	5	

BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN EKINTZAK		
1. IE	**1.4. helburua. Udalaz gaindiko trukea bultzatzea**	
Ekintza	1	x
	2	x
	3	x
	4	
	5	
1. IE	**1.5. helburua. JIHaren inpaktua ezagutzea eta balioestea, hobetzeko**	
Ekintza	1	
	2	
	3	x
	4	

BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN EKINTZAK		
2. IE	**2.1. helburua. Ingurumen-errealitatea ikastetxeetara eramatea**	
Ekintza	1	x
	2	
	3	
2. IE	**2.2. helburua. Hezkuntza-komunitatearen JIHko eskumenak indartzea**	
Ekintza	1	
	2	x
	3	x
	4	x
	5	
	6	x
	7	
	8	
2. IE	**2.3. helburua. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna duten hezkuntza-programak bultzatzea**	
Ekintza	1	x
	2	
	3	x
	4	
	5	
	6	
2. IE	**2.4. helburua. Lana, entitateen arteko lankidetza eta sareko lana sustatzea**	
Ekintza	1	
	2	
	3	x
	4	
2. IE	**2.5. helburua. Etengabeko hobekuntza sustatzea**	
Ekintza	1	
	2	x
	3	
	4	

BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN EKINTZAK		
3. IE	**3.1. helburua. Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean**	
Ekintza	1	x
	2	
	3	
	4	
	5	
	6	
	7	x
	8	x
	9	x
	10	
3. IE	**3.2. helburua. Gizarte-kolektiboekiko lankidetza bultzatzea**	
Ekintza	1	
	2	
	3	
	4	
3. IE	**3.3. helburua. Jasangarritasuna kolektibo profesionaletara hurbiltzea**	
Ekintza	1	x
	2	
3. IE	**3.4. helburua. Jasangarritasunaren aldeko sareak ehuntzea**	
Ekintza	1	x
	2	
3. IE	**Xedea. 3.5. JIHak gizartean duen eragina ezagutzea**	
Ekintza	1	
	2	
	3	x